

Durango 1936

Egia / Justizia / Ordaina

JON IRAZABAL

Bizitza oso baten
memoria

**MAÑARIKO EMAKUME
ERREPRESALIATUAK**


EZ ZEGOEN KONTROLIK

José Emilio Fernández
murió ametrallado en 1978

José Félix Marías
Javier Fernández
Zenitagoia anaiak


04

JON IRAZABAL
Bizitza oso baten
memoria



13

**JOSÉ EMILIO
FERNÁNDEZ PÉREZ**
Ez zegoen kontrolik



16

**JOSÉ FÉLIX MARÍAS
MATURANA**

20

**JAVIER FERNÁNDEZ
PÉREZ**
*"Mi hermano era un
chaval de dieciséis años"*

24

ZENITAGOIA ANAIK
*"Nuestro padre no se saltó
el control"*

26

KOLDO ZENITAGOIA
Bere historia zuen gidaria



28

**ATEAREN OSTETIK
PLAZARA**



30

**ORAIN 80 URTEKO
ETORKIZUNAZ**
Durangoko
emakumeen kartzelaz



32

BERRIZKO FUSILATUAK




36

**ZER GERTATU
ZEN GERO?**
Ipuina
J.J. Bakedano

37

**JOSE MARI
URIARTE GOGOAN**



38

GURUTZI ARREGI

Azaleko argazkia: **José Emilio Fernández Pérez**

Argazkiak: **Zalao Fuertes** (4-12, 13-14, 20-22, eta 26 orrialdeak)

Ilustrazioak: **Jose Enrike Urrutia Capeau** (36-37 orrialdeak)

Testuak: **Durango 1936 Elkarte**

Julen Orbegozo (28-29 orrialdeak), **Maria Gorosarri** (30 orrialdea),

Jimi Jiménez (31 orrialdea), **Maite Arrizabalaga eta**

Valetín Esteban (32-35 orrialdeak), **J.J. Bakedano** (36.orrialdea).

Maketazioa: **Anboto Komunikabideak - DHK**


LG. 1696-2018

Durango 1936 Kultur Elkarte

Pinondo kalea 1, 48200 Durango

www.durango1936.org

durango1936@durango1936.org



Egia · Justizia · Ordaina

Durangoko bonbardaketaren laurogeigarren urteurrenean (2017an) Durangoko udalbatzak batzorde zabala eratu zuen durangarrek bizitako genozidioa gogorarazteko: 300etik gora hildako, makina bat zauritu, herria txikituta eta milaka durangar ikaratuta eta herritik alde egiteko bidean.

Batzorde horretan, besteak beste, Durangoko Alkateak Durangoko epaitegian bonbaketen egileen aurkako auzia jartzea erabaki zen aho batez. Horretarako, ikerketa burutu eta hegazkinetako pilotuak eta tripulazioko kide gehienak identifikatu ziren.

Helburua gure justizia sistemak genozidioaren egileak eta arduradunak epaitzea izan zen, durangarrentzat egia, justizia eta kalte-ordaina aldarrikatuz. Belaunaldi gazteei gertatutakoa ezagutaraztea ere bazuen ekimenak helburutzat.

2017ko uztailaren 18an aurkeztu zen auzia, eta auzitegi-tako bide malkarra hasi zen. Handik 2 egunetara tramitera onartu zuten, baina 2018ko urtarrilaren 11n auzia artxibatu egin zuten. Eta hor hasi zen errekurtsioen eta gorako epaite-

gietarako bidea. Azkenik, 2019an Alkateak jarritako auziari Espainiako justizia sistemak bidea itxi zion. Nonbait, Durangoko genozidioa, honegatik edo bestegatik, ez da justiziari dagokion gaia. Bitxia erabakia! 300 hildakotik gora, ehunka zauritu, Durangoren suntsiketa eta durangarren ikara neurtezina eragindako genozidioa ez da epaitzeko gaia justizia sistemarentzat!

Horrela utziko dugu kontua durangarrok? Ala gaiari berriro helduko diogu eta genozidio hau epaitu dadin berriro ekingo diogu? Izan ere, bada beste bide bat justizia sistemara berriro itzultzeko. Baina horretarako kaltetutako durangarrek (eta ez erakundeek) jarri beharko lukete auzi berria. Aukera honek, Espainiako justiziak bidea itxi arren, Europako justiziarako bidea zabal dezake. Baina aukera hau luzea eta kostu handikoa da, eta auzia jartzen dutenek herri babes handia izan beharko dute.

Bada unea, beraz, herritarrek, hasierako auzia bultzatu genuen herriko taldeek eta udaleko taldeek hausnarketa egiteko eta aukerak aztertze.




iURBETA



Jon Irazabal Agirre

Bizitza oso baten memoria

Lau hamarkada Gerediaga Elkartean. Iurretako Sanmigeletan preso zoz mozorrotuta zegoela egin zioten elkartean lanean hasteko eskaintza. Berrogei urteko borondatezko gatibutza ondarearen zaintzan, kulturaren hedapenean eta memoria historikoaren ikerketan. Inoiz ez bakarrik. Eta horixe du kezka nagusia orain, metatutakoaren transmisioa. Iaz joandako Jose Mari Uriarte bidelagunak esan ohi zuenez, “badirelako irabazten diren batailak, baita galtzen direnak ere. Eta badira, baita, zeinek jarraitu barik geratzen diren gerrak”.



Durungaldeko memoria historikoa eta Jon Irazabalen izena banagaitzak dira. Baditu bi liburu argitaratuak (1937 martxoak 31 Durango / Gerediaga Elkartea; Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937 / Gerediaga Elkartea) eta Gerediaga Elkartean jardun duen urteetan bere lan arloetako bat izan da. Gizon okupatua gauza ederra dela bazioen Xabier Letek, Irazabalek, jubilatuta egonagatik, paper zaharren eta dokumentu berrien bila jarraitzen du.

Gerediaga elkarteko langile legez iaz hartu zenuen jubilazioa.

Bai. Osasun arazo batzuk izan ditut tarteko eta jubilazioa hartu nuen. Jubilatuta egin naiz baina erretiratu ez. Adrian Amantegi zenak esaten zuen moduan, “erretiratu egurrezko trajeak erretiratzeko du bat”. Etxetik baina nire “afizioekin” jarraitzen dut.

FAMILIA ETA IURRETA

Etxetik bertatik ere jaso duzu hainbeste landu duzun Gerra Zibil deiturikoaren testigantza zuzena.

Gurasoak biak Mendatakoak nituen. Aita, Claudio, Albizkoa eta ama, Pilar, Zarra auzokoa. Aita, 1922an jaioa, gaztegia zen gerrarako baina Eusko Jaur-laritzak hala aginduta Kalamua inguruan trintxeraginean aritu ei zen bolada batez. Gero, tropa nazionalak zetozelata, gure aititerekin eta Albizko beste hainbatekin batera, ganaduak hartu eta Enkarterrietara joan ziren. Bilbo faxisten esku geratu zenean, baserrira bueltatu ziren. Aitita EAJko seinalatua zen Mendatan.

Amaren familia gehiago zen karlista aldekoa baina neba bat, Isidro, jeltzalea zuen. Gerran gudari joan, preso hartu eta Santoñatik hasi eta hainbat kartzela pasa zituen. Heriotza zigorra ere ezarri zioten, baita gero kendu ere. Auzokoren batek begitan hartuta, berriro epaitu eta beste egotaldi bat egin zuen kartzelan.

“Gure amari Mendatetik sugarrek gorrituta ikusi zuen Gernikako zeru hura geratu zitzaion betirako gogoan”

Edozelan ere, gure amak, artean sei urteko umea izan arren, beti gogoan izan zuena Gernikako bonbardaketa zen. Inguruan zebiltzan ehiza-hegazkinen pilotuei betaurrekoak ikusi ei zizkien, hain baju egiten zuten hegan-eta. Eta batez ere, iluntzean, Mendatetik sugarrek gorrituta ikusi zuen Gernikako zeru hura geratu zitzaion betirako gogoan. Egun argia zirudiela esaten zuen.

Gurasoek ezkondu eta lurretara egin zuten. Bertan jaio eta hazi zineten hiru nebarrebok.

1955ean etorri ziren lurretara. Aita armagina zen, eskopetak-eta konpontzen zituen, etxean bertan zuen tailerra. Garai hartan, lurreta ez zen gaur egun ezagutzen duguna. Neure begiekin ikusi dut hazten, etxeak eraikitzen, familiak handik eta hemendik iristen, Durangon Sanfaustora, Mataderora (Aramotz auzunea) edo beste auzo batzuetara iritsi

ziren moduan. Argi esanda, garai batean hemen bi komunitate bizi ziren herri berean. Alde horretatik, uste dut Mataderoran, adibidez, itzelezko aziertoa izan zela Herria Auzo Elkartea sortzea, eta horrek asko lagundu zuela komunitatea trinkotzeko lan horretan.

lurretan berriz, bestelako mugimendu bat zebilen martxan jartzen, Julen Kaltzada abadearen eta abadetxearen bueltan. Herri Gaztediko jendea zebilen hor batez ere, baina ez hori bakarrik. Julen Kaltzadak Burgosko Prozesuko epaiketan esan zuen bezala “Ha etxea ez da nirea, herriarena da”. Dantza taldea, euskara eskolak, danatariko batzarrak... Abadetxea, edo guk deitu izan diogun legez, “Saloiak”, jende eta mugimendu askoren aterpea izan zen. Eta ez lurretako jendearentzat bakarrik. Gerora sarritan pentsatu izan dut zelako garrantzia izan zuen garai hartan espazio bat izateak herrian hainbat mugimendu eta ekimen sortzeko. Ez da txorakeria bat. Espazio batek erreferentzialtasun bat sortzen du eta jendeari eta inizatibei aterki bat eskaintzen die. Funtzio hori lurretan “Saloiak” bete zuen. Frankismopeko Gerediagak ere antzeko funtzioa bete zuela esango nuke.

GEREDIAGA ELKARTEA

Goazen, bada, Gerediagarekin. Aterkia zabaltzen hasi aurretik, egiguzu berba sorreraz eta hasierako pau-soez.

Gerediaga 1965an sortu zen, San Bizente egun batez (urtarrilak 22). Astolako jaiak zirela aprobetxatuz Jose Luis Lizundiaren etxean batu zen taldetxo bat: Leopoldo Zugaza, Carmen Miranda, Kapanaga iurretarra, Astola ahiztak... Bazegoen jende talde bat gauzak egiteko gogoz eta premia horrek batu zituen elkarrengana. Hasieratik halako irudi plural bat eman gura izan zen errejimenaren aurrean eta, kasurako, elkarteko lehenengo presidentea Conchi Astola izan zen. Bere ahizta Charines ere, urtetan Durangoko udaleko idazkaria izan zena, tarteko zen. Konparaketak ez dira sekula justuak, baina demagun, bazegoela halako Real Sociedad de Amigos del País-en irudia emateko idea bat, errejimenak errazago irensteko modukoa.

Oker ez banago, 1965eko ekainaren 21ean legalizatu zen elkarte legez. Anekdotak moduan, Gerediagako artxi-boan badago Fraga Iribarneren gutun bat. Egin kontu Fraga garai hartan Información y Turismoko ministroa zela. Iñaki Aizpurua durangarrak TALGOaren taber-



nan egin ei zuen topo Fragarekin. Aizpuru Durangoko alkatearen (Azpirozen) koinatua zen eta hortik lortuko zuen Fragarengana iristea. Bada, legeztazeari buruz berba egin zion eta baiezkoa eman ei zion. Ez dut uste orduko Bizkaiko Gobernu Zibila oso aldekoa zenik, baina... Zaharrenei entzun izan diedan moduan, Gerediaga Fraga Iribareren “akats” bati esker legezta zuen.

“Liburu Azoka Leopoldo Zugazaren ekimena izan zen. Lizundiak gehitu ei zizkion diskoak”



Gerediaga sortu zen urte berean antolatu zuen lehenengo liburu eta disko azoka.

Leopoldo Zugazaren ekimena izan zen. Asmoa zein zen? Argitaratzen hasita zegoen material apurra (Itxaropena argitaletxekoa, Arantzazun argitaratzen zena...) eta biltegiren batzuetan egon zitezkeen gerra aurreko liburu ez-ilegalak batu eta ikusgarri bihurtzea. Leopoldok esaten zuen Lizundiaren ideia izan zela liburuei diskoak gehitzea. Iñaki Beobidek Herri Gogoa diskoetxea legezta berri zuen, Ez Dok Amairu sortu berria zen eta lehenengo singleak kaleratzen ari zen: Benito, Lurdes Iriando... Horrelaxe hasi zen Azokaren historia.

1966an ez zen ospatu Andramariko elizpea obretan zegoelako. 1967an heldu zioten berriz, indarrez gainera. Bizkaiko Gobernu Zibilak ez zuen debekatzerara iritsi gura baina bai trabak jarri eta, zelanbait esateko, marjinatu. Azoka Andramariko elizpetik merkatu plazara lekualdatzera behartu zituen eta, kalte egin asmoz, mesede besterik ez zion egin. Andra Marian itoginez eta hotzaz kezu zen jendea. Merkatu plazan ere ba zeuden itoginak baina zarratua zen, eta espazioa zabalagoa. Harrezkero, Azokak hainbat kokapen pasa ditu baina ez du etenik izan gaur arte.

Itoginak aipatu dituzenez, heldu diezaiozun arestian aipatu duzun Gerediagaren aterki funtzioari.

Naufrajio batetik gentozen. 36ko gerraren ostean barkua hondoratu egin zen eta bakoitzak ahal zuen moduan egin zuen aurrera. Momentu batean, jendea berriz ere, astiro-astiro, elkarrengana hurbiltzen hasi zen, eta halaxe gertatu zen Gerediagarekin. Ekimen ba-



tzuk elkartearnak berarenak ziren eta beste batzuk haren babesa bilatzen zuten legeztauta zegoelako: gau eskolak, dantza mundua, Geroa antzerki taldea... DIBA baserriarren kooperatibaren sorreran ere egon zen Gerediaga. Estatuak hain ziren zabalak, kirola kenduta ia beste edozer bultzatu zezakeela. Gehitu horri herri bakoitzak bere delegazioa zuela eta, zelanbaiteko autonomia bat. Beraz, halako auzotan jai batzordea eratu behar zela, bada, Gerediagaren delegazioaren izenean egiten zen. Aterkia, ia-ia, gura edo behar beste zabal zen.

Delegazioen erabakimena zela eta ez zela, arrakala sortu zen Gerediagan halako batean.

Bai. 1970-72 tarte horretan izan zen. Arrakala hori Liburu eta Disko Azokaren inguruan zabaldu zen. Leopoldo buru zuen Durangoko delegazioak zioen Azoka euren ekintza bat zela. Batzar Orokorak berriz, erabaki zuen elkarteari zegokiola, bere osotasunean. Egon ziren gora-behera batzuk eta jende bat kanporatua izan zen: Gurutzi Arregi, Basilio Arana, Berganza... Beste zenbaitek baja eman zuten, Leopoldok berak tartean.

Kontuak kontu, uste dut arrakala hori Gerediagaren barruan aspalditik ematen ari zen talka batek sortua zela. Ulertzeko era batean esanda, esango nuke bi sektore zeudela, argi eta garbi. Bata, ilustratuagoa, akademizistagoa, Leopoldok ordezkatzeko zuena. Eta bestea popularragoa, Herri Gaztediren bueltatik zein beste alor batzuetatik zetorren jendeak osatua. Arrakala hor zabaldu zen baina presio tektonikoa lehenagotik zetorren. Balendin Lasuen zen sasoi hartan Gerediagako presidentea eta, pentsa, gerora neuri ere leporatu dizkirate orduan gertatutakoak. Hamaika-hamabi urte nituen eta ez nengoen Gerediagan!

Franco 1975ean ohean hil eta gero Trantsizioa etorri zen. Gerediagaren aterkia zarratu egin zen?

1978-79 inguruan, Gerediagaren asanblada orokorra egin zen eta lau katu geratu ziren. Diktaduraren ostean, zenbaitek ez zuen ikusten Gerediagaren aterkiaren premiarik elkarrekin sortu eta legeztauteko ez zegoelako, printzipioz, oztopo legalik. Baten batek proposatu zuen hileta duin bat egin eta Gerediaga agurtzea. Besteren batek, “badaezpada” elkarte mantentzea baina atzera buelta bat balego erabiltzeko bakarrik. Ulertu gura duenarentzat, azkenak argiak amatatu eta atea zarratzeko esaten ari ziren.



Ez zuten aterik zarratu, ezta argirik amatatu...

Ez. Taldetxo bat geratu zen: Anton Mari Aldekoa-Otalora, Jose Luis Lete, Lazaro Milikua, Jesus Mari Salterain, Sabin Goikolea (barkatuko didate baten bat ahazten badut)...Gerediaga ez zegoen hilda baina, zelanbait esateko, zaintza intentsiboetan zegoen. Bere jarduna oinarrizko ekitaldietara murriztu zuen: Liburu eta Disko Azoka, artzain txakurren txapelketa, Epaztadantzari Eguna... Gitxi gehiago. Sasoi horretan fitxatu ninduten Gerediagaren bibliotekaz eta artxiboaz arduratzeko.

“Sasoirik onenean” sartu zinen, orduan.

Egia esan, lehenago hurbildu nintzen elkartera ondareari lotutako nire lehenengo gerra zela-eta: Murueta Torreko dorrea. Artean ez nintzen Gerediagako kidea. 1977a izango zen, oker ez banaiz. Durangoko udalak etorbide handi bat egin gura zuen kanposantutik N634 errepidera zihoana. Tartean, besteak beste, Kurutzesantu, Garai jauregia eta Murueta Torre dorrea lurrarekin berdinduta, pentsa! Bartzelonako unibertsitateko bi irakasleren eta Perico Basañez arkitektoaren laguntzarekin, proiektua geratzea lortu genuen.

Hor egin zuten bat nire lehenengo ekintzak eta betiko aldarrikapen bategi: Durangaldeko dokumentategiak. Ez litzateke leku txarra Murueta Torre Durangaldeak behar-beharrezkoa duen dokumentazio zentrua hartzeko. Amets horrekin bat egiten zuen Jose Mari Uriarte zenarekin ere orduantxe egin nuen topo. Berrogei urtean zenbat modibatan ez ote garen sozio ibili!

“ Ez litzateke leku txarra Murueta Torre Durangaldeak behar-beharrezkoa duen dokumentazio zentrua hartzeko ”

Noiz hasi zinen Gerediagan lanean?

1980an hilabeterako liberazioa eskaini zidaten Liburu eta Disko Azoka antolatzeko. 1981ean ere bai, eta soldadutzatik lanera etortzeko baimena lortu nuen gainera! 1982an elkartearen arte edo iso zegoen. Anton Mari eta Lazaro eguneroko lanean murgilduta ibili ohi ziren. Lete eta Goikolea, berriz, begirada etorkizunean izan ohi zuen jendea ziren. Eusko Jaurlaritzan bilera bat egin ostean, langile bat hartu eta elkarteari beste martxa bat ematea erabaki zuten.

Ez dut sekula ahaztuko ze, urriaren 1a zen, Sanmiguelak lurretan. Mozorro eguna. Presoz mozorrotuta nengoela bota zidan proposamena Anton Mari. Baietz nik.

Ordurako Durangaldean egon zen bat edo beste euskara irakasteko liberatuta baina kultur erakunde baten lehenengo liberatua neu izan nintzen. Gogoan dut amak esan zidana: “Horrek ez deuko etorkizunik baina besterik ez dagoen artean konforme. Besterik agertzen bada, kitto”. Gaur arte.

Astolako etxean hasi zinen behar-rean?

Etxea desastre bat eginda zegoen, erdi abandonatuta. Lapurrak ere sartzen ziren nahinez. Artxiboaren zati bat ere eroan zuten behin. Ez dut uste asko erratuko naizenik Montorretatik etorri zirela esaten badut. Edozelan ere, 1982-86 bitartean, Foru Aldundiak errestauratu egin zuen etxea. Horren ostetik, baten batek ez zuen, antza, Gerediaga han gura. Euskadiko Pilota Federazioa sortu berri zen eta Gasteizen euskal pilota mundialak jokatzeak ziren. Nik ez dut ezer federazio horren aurka, ezta Euskal Herriko Herri Kirolen Federazioaren aurka ere, baina ez dut uste Astolako Etxea denik euren lekua. Gerediagaren propo-



samena zen Durangaldeko etxea izan zedin Astola. Mankomunitatea, Gerediaga eta Durangaldearen historia jasoko zuen erakusketa bat batzea bertan. Zoritxarrez ez da horrela izan. Egun Gerediagak han dauka bere egoitza ofiziala baina Durangoko bulegoetatik dihardu. Nire iritzia da Gerediagaren egin beharrekoen zerrendan hor jarraitzen duela oraindik Astolako etxeak eta Gerediagako ermitak berak. Bizia eman beharko litzaiekeela Enkarterriek Abellanedako jauregiari eman dioten moduan. Baina, Durangok asko tiratzen du.

“Nire iritzia da Gerediagaren egin beharrekoen zerrendan hor jarraitzen duela oraindik Astolako etxeak eta Gerediagako ermitak berak”

Praktikotasunagatik ere izango da, ezta?

Gerediaga ez da inoiz praktikotasunean bakarrik oinarritu den elkarte bat izan. Nik uste, gaur egun, praktikotasunak eta bihotzak osatzen duten buztarri hori ez dagoela ondo orekatuta.

MEMORIA HISTORIKOA

Memoria historikoaren ikerketa izan da Gerediagan egin duzun lanaren ardatzetako bat. Noiztik eta zergatik grina hori?

Lehenago ere aipatu dut Gerediagako kidea zen Jose Luis Lete, bada, badu zerikusirik horrekin. Irakaslea zen eta kazetaritza ikasten ari zen aldi berean. Irakasletzan ziharduela konturatu zen eskolak ez zuela ezelako loturarik eskaintzen bere gertuko inguruarekin. Ez zen herri mailako historiarik irakasten, eta irakasleek ere apenas zekiten ezer. Pentsa, garai hartan joanda nago ni eskola umeei Durangaldeko historiari buruz berba egitera nekientxoarekin. Gaur egundik begiratuta lotsa ere ematen dit baina horrela hasi nintzen.

Gerediagak pentsatu zuen zerbait antolatzea jendeak lekuko historiaren ezagutza izan zezan. 1984an Durangaldeko historiaren inguruko ziklo bat antolatu genuen. Hitzaldiotako bat martxoaren 31 batez egin genuen eta Manuel Tuñón de Lara historialaria eka-

rri genuen. Hainbeste jende batu zen, Durangoko Institutura lekualdatu behar izan genuela hitzaldia nahiko modu inprobisatuan. Hitzaldiaren ostean, afaltzen ginela, Durangoko bonbardaketari buruz berbetan hasi eta berak argi eta garbi botatu zuen apenas zegoela horri buruzko ezer liburuetan, “En dos líneas se cepillan el tema”. Berak bultzatu gintuen gaien sakontzera, are gehiago kontuan izanik, hiru urteren buruan, bonbardaketaren 50. urteurrena izango zela.

Tuñón de Larak amua botatu, eta zuk kosk.

Erronka pertsonala eta kolektiboa zen aldi berean. Animatu nintzen amuari heltzera banuelako elkartearen babesa, bai ekonomikoa eta bai bestelakoa. Eta hori azpimarratu gurako nuke ze, bestela, ez da posible halako lan bati luzaroan eustea. Ikerketak denbora eta ahalegin handia eskatzen du eta nik beti izan ditut bidelagunak. Han eta hemen dokumentazioa bilatzen hasi ginen, Tuñón de Larak gomendatu legez 50. urteurrenari begira.

“Ikerketak denbora eta ahalegin handia eskatzen du eta nik beti izan ditut bidelagunak”

Zer antolatu zenuten bonbardaketaren 50. urteurrenerako?

Erakusketa bat antolatu genuen Kalebarriko bibliotekan. Madrilgo Filmotecan bonbardaketaren osteko Durangoko irudi batzuk lortu genituen eta haiekin dokumentaltxo bat egin genuen bertan proiektatzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak garaiko hainbat material jarri zigun eskura, egunkariak eta halakoak. Liburuxka bat ere argitaratu genuen 1937an Eusko Jaurlaritzak Durangon hildakoen izenekin osatutako zerrendarekin... Gaurtik begiratuta ekimen xumea izan zela dirudi baina itzelezko arrakasta izan zuen. Jendetza hurbildu zen.

Egizu kontu ordura arte bonbardaketaren gaia “etxe barruko” kontua zela Durangon. Hilabeteak lehenago ezer gogoratzen ote zuten galdezka joan eta ezer gogoratzen ez zuela esan zigun jende bera, erakusketara hurbildu eta berbetan hasten zen. Uste dut Gerediagaren meritua izan zela gaia plaza publikoan jartzea. Batek baino gehiagok arindu galanta hartu zuen barruak aska-

tuta. Urteurren horrek mugarri bat ezarri zuen.

Berrogeita hamar urte igarota izan arren, gaia plaza publikoan jartzea ez zen guztien gustukoa izango.

Ez, gero! Jaso genuen sinatu bako gutun bat baino gehiago. El Correion ere argitaratu zen besteren bat berba ez oso politekin. Badakizu zer? Azken finean, gaur egun entzuten diren argudio berak zerabilzaten orduan ere: ez duela merezi iraganeko zauriak berriz zabaltzeak, ez dela satsa zabaltzeko sasoa...

Begira, Durangok *pekatu* bat zeukan, berrogeita hamar urtera ere, pisu handia zuena. 1936ko irailaren 25ean abiazio faxistak Ezkurdin bonba batzuk jaurti eta hainbat miliziano akabatu zituen. Hildakoen lagunek kartzela asaltatu eta bertan zeuden 22 durangar tradizionalista fusilatu zituzten kanposantuan. Heriotza soka itzela sortu zen hor. Gerora frankistek fusilatu edo salatutako durangar gehienak akusazio horregatik izan ziren. Pentsa, frankistei aurre egin zieten gehienak hilda, kartzelan edo exilioan zeuden. Durangon geratu ziren lau katuekin karlistek mendekua eta mehatxua nahieran erabili zuten.

Erakusketaren ostean ikertzen jarraitu zenuten?

Aldi batez bai. Londonen, Parisen, Erroman eta Madrilan izan ginen. Bidaia horietan Mirari Erdoiza Gerediagako kidea laguntzen zidan beti, berak hizkuntzak zekizkien eta nik ez. Elkarteko juntatik ere banuen babesa. Baina Gerediagan Herio bere lanak egindakoa da eta, erakusketa martxoan egin eta, uztailean, Jose Luis Lete hil egin zen eta hainbat proiektu bertan behera geratu ziren.

Aurrera jarraitu genuen, hala ere. Hori bai, orduan ikerketa hauei zegokienez ez zegoen giro akademikorik, ez ezer. Ez daukat ahazteko Madrilera Servicio Histórico Militarera joan ginenekoa. Mártires de Alcalá kalean. Hara sartzea zen Valle de los Caidosen sartzea baino okerrago! Sarreran, eskumatara, Francoren azkeneko gerra partearen orijinala. Hogeita hamazapiko gerrako dokumentazioa eskatu eta Karlistadetakoa ekarri zidaten, 1837koa. Nik ezetz, 1937ko gerrakoa gura nuela. Aurrean nuen komandanteak, eskuekin paparra joz, esan zuen: “¡De la nuestra!”. Atara kontuak zer giro zegoen oraindik 1987an!

Orduan jakin zenuten Durango bonbardatu zutenak italiarrak izan zirela eta ez alemaniarrek?

Horrek ere badu bere historia. Berrogeita hamargarren urteurrenaren harira, Vicente Talónek idatzi zuen zerbait El Correon italiarrak izan zirela-eta. Berganzak ere, bonbardaketaren garaian ume zenak, erakusketara etorri eta italiarrak izan zirela esan zigun. Berak abiazioan egin zuela soldadutza, Madrilen, Cuatro Vientosen, eta han ikusi zituela umetan Durangon ikusitako italiarren Savoia hegazkinak. Baina ez genion kasurik egin. Gernika alemaniarrek erre zuten, Jaurlaritzaren paperetan alemaniarrek aipatzen ziren...

“Nik Frente del Norte bilatu arren, hegazkin italiarrak Soriatik atera ziren Durango bonbardatzera. Eta Soria Frente del Centron zegoen!”

Edozelan ere, nik banuen bonbardaketaren egilezarekin arantza bat. Villaviciosa de Odónera, aireko ejerzitoaren artxibo historikora joan, eta dokumentazio piloa ekarri genuen. Beti ari nitzen bila eta bila Frente del Norte aipatzen

zen leku guztietan, eta ezer aurkitzen ez. Halako batean, Jose Mari Uriarterekin kotxean nindoala, paperei begira, orroaka hasi nintzen. Ea zer demonio nuen, berak. “Italiarrak izan ziren!”. Kontua da nik Frente del Norte bilatu arren, hegazkin italiarrak Soriatik atera zirela Durango bonbardatzera. Eta Soria Frente del Centron zegoen! Batzuetan zerbaitekin itsutzen zara eta ez duzu beste ezer ikusten.

Hala ere, esan beharra dago, inork bestelakorik pentsatu ez dezan, bonbardaketen planifikazioa alemaniarrena izan ohi zela. Normalki alemaniarrek frentean jarduten zuten eta italiarrek atzeguardian. Hori bai, horren guztiorren gaineratik, aginduak Francorenak edo Molarenak ziren.

Italiarrei lotuta, baduzu anekdotaren bat Erroman aireko ejerzitoaren artxibategietan jazoa, ezta?

Bai. Oso ondo hartu gintuzten eta hainbat dokumentu jarri zizkiguten eskura. Biharamunerako kopia tuko zizkigutela. Haietako batean, eskudraren eguneroko batean jartzen zuen martxoaren 31n Durango bonbardatu ostean, sari legez edo, pilotuei eguna libre eman zirela eta Zaragozara joan zirela behar fisiologikoak asetzerat. Putetxeren batera joan zirela, alegia. Biharamunean esan ziguten dokumentu konkretu hori

ezin zigutela eman, klasifikatua zegoela. Eskerrak gure aurretik beste batzuek eskuratua zuten eta ez zitzaigun asko kostatzen haien bidez kopia bat lortzea!

Bestalde, badago hor, italiarren artean, zoritxarreko figura aipagarri bat: Ferdinando Rafaelli. Aviazione Legionariako komandantea zen eta Durango bonbardatu zuen eskudrillaren ardurduna. Durangoko Harakina deitzen diot nik. Lotsabako halakoak bere bonbardaketa guztien leku eta egunak idatzita zerroatzen bere hegazkinaren fuselajearen. Musolinirekin, Francorekin, aliatuekin... Guztiekin eta guztientzat aritu zen. Ez zen badaezpadako pajaroa! (13. orrian Jon Irazabalen “Ferdinando Rafaelli: El Carnicero de Durango” testua).

Zer gertatu zen 1987tik 2001era bitartean bonbardaketaren gaiak plaza publikoa galtzeko?

Egia da gaia lo antzean geratu zela, baina ez geldirik. Durangoko udalaren diru-laguntzei esker ikerketarekin jarraitu genuen. Italiarrena jakin genuenean, prentsaurreko bat egin genuen udalartean. Tarteka Jose Luis Iturrieta, Deia-ko kazetariak, zerbait argitaratzen zuen. Guk dokumentazio guztia Durangoko udal artxibategira eroan genuen baina bizpahiru urtez erabilgarri ez jartzeko baldintzarekin, argitaratzea lortu artean.





2001. urtean berriz ere kalera atera zenuten gaia.

2001ean pauso garrantzitsua eman zen. Berbaro elkartetik hurbildu zitzaizkigun proposamen batekin: Gernikan egiten zen legez, bonbardaketan hildakoei omenaldi publikoa egin behar zitzaizela. Berbaro, Gerediaga eta Kriskitin Dantza Taldea batu ginen eta orduantxe egin zen lehenengoz martxoaren 31ko Andramariko ekitaldia.

Horrekin batera, 2001ean argitaratu genuen bonbardaketari buruzko liburua. Antolakuntza talde hartan galdetu zidaten ea zelan zegoen ikerketa, eta ea bazegoen argitaratzerik. Beharbada gaur ez nuke baiezkoa emango, baina orduan eman nuen eta pare bat hilabetean eman nion forma liburuari. Gerediagaren argitalpenen artean bigarren edizioa izan duen bakarretakoa izango da. Jen-deak estimatu zuen.

Esango nuke urte hartan hasi ginela Durangoko bonbardaketaren gaia historian dagokion lekuan jartzen.

EGITEKO DAUDENAK

2021. urtean gaude. Hogeitau urte igaro dira omenaldi publikoa egiten hasi zenetik. Zer dago oraindik egiteko Durangon bonbardaketari eta memoria historiakoari lotuta?

Hasteko eta bat, hausnarketa orokor moduan esango nuke euskaldunok falta dugula memoriarekin lotutako egun nazional bat. Konparazioetan sartu barik, Isarelek Holokaustoaren Egunarekin egiten duen antzeko zerbait.

Durangora etorrita, uste dut falta dela bonbardaketari lotutako espazio edo elementu memorialistiko definitu bat. Andramariko elizpean plakatxo bat dago, jartzea dexente kosta zena, baina bai dagoen tokiagatik, zein dimentsioagatik, inundik inora ere funtzio hori betetzen ez duena. Bere garaian probisional legez jarri zen eta hor jarraitzen du. Jesuiten aurrean ere badago Durango 1936 elkartearen ekimenez paratutako elementu eskultoriko bat, behinola Kurutzia gako gurutzearentzat egindako estalki handi bezain nabarmen batek estalita. Garestia izango zen estalki hori, baina markoa koadroa baino ikusgarriagoa denean zerbait ez dabil ondo.

Kanposantuan dagoen kapera da beste gaietako bat. Bere garaian jaungoikoaren eta aberriaren alde hildako martiriei eskainita eraiki zen. Gero sin-



“Durangon falta da bonbardaketari lotutako espazio edo elementu memorialistiko definitu bat”

bologiaren parte bat kendu eta bonbardaketan hildakoen izenen zerrenda ere bertan jarri zen, baina ez dut uste leku egokia denik. Kapera horrekin zer egin ondo pentsatu beharko litzateke

Durangoko kanposantuan badaude bonbardaketan hildakoak pilatu zituzten bi hobi komun ere. Badakizu non dauden? Zer egin hobi komun horiekin?

Badakigu non dauden, bai. Jesus Mari Arruabarrenak Gerediagaren eskariz egin zuen dokumental baterako kanposantuko enterradorea elkarrizketatu zuen. Txatal hori ez zen dokumentalean sartu baina bertan zioen non zeuden hobiak eta zelan iritsi ziren gorpuak bertara. Txiki-txiki eginda iritsi zirela gehienak, gorputz atalak elkarrengandik bereizita eta nahastua kasu askotan. 120 bat gorpu dira, 40 inguru identifikatu gabeak. Horietako seiri orain gutxi jarri diegu izena Jimi Jimenez ikerlari durangarrak euren gudari xafletako zenbakiak aztertu dituenean.

Badakit hobi komun gaia labaina dela. Baina zer egin behar da, hezurak lurpetik ateratzen hasi testigantzei esker badakigunean apenas dagoela gorpu osorik? Ez al da egokiagoa egin beharreko identifikazio guztiak egiten saiatu eta espazio horri beste kategoria bat ematea? Ni neu horren aldekoa naiz. Espazio horri duintasun bat eman,

zedarritu, estela bat edo zerbait jarri, hildakoen izenak argi eta garbi ipini... Bisisan joateko leku duin bat izan dezatela etxeok eta gertatutako sarraskiaren oroimenezko espazio bat durangarrek.

Hobi komun horietan Durangoko bonbardaketan hildakoak bakarrik daude?

Nagusiki bai. Hortik aparte Otxandion zauritu eta durangon lurperatutako miliziano eta gudari batzuen gorpuak ere badaude. Badukat aspaldiko argazki bat Otxandio Batailoiko kideek bertan ehortzitako kideei jarritako plakatxo batena, eskuz egina.

Beti esan izan da norbaitek kanposantuko erregistrotik bonbardaketaren egunetako orrialdeak erauzi zituela. Zer diozu horretaz?

Luzaroan pentsatu izan genuen bonbardaketaren ebidentziak ukatzeko erauzi zituztela orriok. Era berean, ez nintzen bakarria pentsatzen zuena oso jokabide baldarra zela. Hau da, kanposantutik kendu, baina elizako erregistrotik, ez? Tontoren batek egindakoa izan zitekeen baina, esan ohi den moduan, “Hemen tontorik etxauk!”.

“Jabi Zurikarai zenak hiru orri pasa zizkidan eta bertan kanposantuko erregistroko orrietan jasotakoa transkribatua zuen”

Halako batean, Jabi Zurikarai zenak zenbait orri pasa zizkidan eta bertan kanposantuko erregistroko orrietan jasotakoa transkribatua zuen. Jabik ez


zidan esan nondik atera zuen informazioa. Aitaren bitartez (Patxi Zurikarai, diktadura osteko Durangoko lehenengo alkatea), harremana zuen gerra garaiko hainbat EAJko jenderekin. Patxi bera ere bazen nor. Horrek pentsatzera narاما orrialdeok ez zituztela frankistek erazi, Eusko Jaurlaritzako edo inguruko norbaitek erazi zituela Durangoko sarraskia frogatzeko agiriak edukitzeko. Ze, kontuan hartu beharreko datua da, Gernikaren kasuan ez bezala, Durango bonbardatu eta uria frankisten esku geratu bitartean, 28 egun pasa zirela. 28 egun Durango Eusko Jaurlaritzaren agintepean.

Orduan, zergatik ez dago dokumentu hori artxibo publikoren batean, edo Sabino Arana fundazioan, adibidez?

Nik dakidala ez dago. Jabi bera handik girtxira hil zen eta ez nuen gehiago jakin. Nik uste esku pribatuetan egon dela eta dagoela oraindik. Noren eskuetan? Jabik bazekien bere aita Patxik bazekielako izango zen, eta biak hilda daude.

Zure biziza profesionalaren zati handi bat eskaini diozu memoria historikoaren eta memoria lokalaren ikerketari. Hor jarraitzen duzu oraindik. Zergatik? Zertarako?

Batetik, sarritan errepikatzen den topikoa dago, egiaz betea dagoena: memoria ezinbestekoa da akats berberak



1


ez errepikatzeko. Horregatik uste dut gai hauek eskoletan landu behar direla, gazteenekin. Martxoaren 31ko ekitaldiez harago, jakin behar dute gerra bat izan zela, zergatik izan zen eta zer ondorio izan zituen.

“Nire kezka da zelan pasa ezagutza hau hurrengoei, gu hemen ez gaudenean, norbaitek lan horretan jarraitu dezan”

Transmisioa da nire obsesioetako bat. Zelan pasa ezagutza hau hurrengoei, gu hemen ez gaudenean, norbaitek lan horretan jarraitu dezan. Horregatik iruditzen zait ezinbestekoa Durangaldea bere dokumentategi propioa izatea. Bestela zer gertatzen da? Pertsonak desagertzen direnean, hainbat gai lantzeari uzten zaiola. Nire sozioa, Jose Mari Uriarte hil zenean, inoiz baino argiago ikusi nuen eta gogoratu nintzen bere esaldi horretaz: *“badira irabazten diren batailak, baina galtzen direnak ere. Eta badira baita, zeinek jarraitu barik gertatzen diren gerrak”*.



1 Jabi Zurikarai Jon Irazabali emandako kanposantuko zerrendaren transkripzioa.



**José Emilio
Fernández
Pérez**

(1962-1978)

Ez zegoen kontrolik

1978ko Sanjuan bezpera. Futboleko munduko kopa jokoan Argentinan eta Trantsizioa deituriko garai bortitza Euskal Herrian: ETAren bi adarren ekintzak nahinoz, ultraeskuindarren talde parapolizialak nahieran, eta guardia zibila jaun eta jabe bazterretan. Garai horretan kokatzen da datozen orriotan xehetasunez eta ertz ezberdinetatik helduta jaso dugun gertakaria. Elorriko hamasei urteko gazte bat hil zuen guardia zibilak Apatan (Atxondo): José Emilio Fernández Pérez.



José Emilio , nire laguna

Testua: **José Félix Marías Maturana**

1978ko ekainaren 23an, José Emilio Fernández Pérez laguna eta biok Durangora joan ginen arratsalde-pasa. Gazteak ginen, hamasei urte genituen. Gaueko 23:00etan, gutxi gorabehera, Elorriora itzultzeko, autostop egiten jarri ginen Montorretan. Jorge Velasco gaztea ere autostop egiten ari zen apur bat atzerago.

Bat-batean tiro-hotsak entzun genituen Durangoko guardia zibilen kuartelaren inguruan. Jorge gugana hurreratu zen, ea tiro-hotsak entzun genituen. Guk baietz, baina ez genien garrantzirik eman eta atzamarra jartzen jarraitu genuen.

Hogei bat minutu geroago Koldo Zenitagoia gertatu zitzaigun, gure lagun baten aita. Seat 850 zuri bat zeukan eta prest zegoen gu Elorriora eroateko. Jorge aurrean jesarri zen eta Jose Emilio eta biok atzealdean. Elorriorako bidean isil samar joan ginen. Gau iluna zen eta argi gutxi zegoen bidean. Kotxea astiro zihoan, 70 km orduko gainditu barik, eta pentsatu nuen *'Uste dut egundo ez naizela hain astiro ibili. Kotxea gidatzeko bere modua izango da'*.

Abadiñoko Andramarira heldu ginenean, Iberdrolaren zentrala dagoen ingurura, Jorge Velascok geratzeko eskatu zion txoferrari, inguruan bizi zela-eta. Jorgek kotxetik irten eta guk aurrera jarraitu genuen. Apatamonasterioko zuzengunera sartzean, *Ongarri* pentsuen biltegia zegoen lekutik hur, bat-batean, metraileta tiro-hotsak entzun nituen. Makurtze-

ra egin nuen senez, eta gerra hasi zela pentsatu nuen.

Balen bero errea igarri nuen eskumako besaurrean. Kotxea bide bazterrean geratu zen, tirokatu gintuzten lekutik nahiko gertu, astiro zihoan-eta. Jose Emilio nire gainean jausi zen, arnasestuka. Zur eta lur, kotxetik irten eta, nire aurrean, bidearen bestaldean, guardia zibil bat ikusi nuen. Hamarren bat metrotara, bigarrena. Bide bazterretik zetoze zirudien, gordeta egon izan balira bezala. Ikusi nituenean, deiadar egin nien, laguntzeko mesedez, nire laguna oso txarto zegoela. Batak besteari esan zion, *'Ederra egin dugu!'*. Orduan, Koldo atera zen kotxetik eta, bat-batean, lurrera jausi zen. Guardia zibilek jaso zuten. Berna bat balek suntsituta zeukan, giharrak lehertu balitzaizkio bezala. Ez nekien zer egin, jota nengoen, ikaratuta. Une horretan jabetu nintzen han ez zegoela beste guardia zibilik, ez poliziarik, ez beste inor.

Handik apur batera, Elorriorantz zihoan kotxe bat heldu zen. Urizar abizeneko bat, harakina Elorrioren, eta gertatu zena ikusita eroateko eskaintza egin zigun. Guardia zibilek Jose Emilio kotxearen atzealdean jarri zuten eta ni bere ondoan jesarri nintzen.

Argi eta garbi daukat nik ez nuela gelditzea eskatzen zuen inolako seinalerik ikusi bidean, ezta, kontroletan egon ohi diren bezala, trafikoa bideratzen zuen guardia zibilik ere. Ez zegoen beste guardia zibilik, ez behintzat guk ikusteko moduan.



Urizarrek Durangoko anbulategi zaharrera eroan gintuen. Ordurako banekien berandu zena: Josemi hilda zegoen. Anbulategian oso txarto jarri nintzen, jota. Hormak kolpeka jotzen nituen eta gertatzen ari zenaz galdetzen nion neure buruari, ezin bainuen bizitakoa sinetsi. Injekzio bat jarri zidaten eta Basurtoko Ospitalera eraman ninduten anbulantzian.

Basurtoko ospitalean ohatilan atera ninduten eta jende asko zegoela oroitzen naiz. Jose Luis Zenitagoia, Koldoren semea, hurreratu zitzaidan eta dena poliziaz beterik zegoela esan zidan.

Plakak egin zizkidaten eta besoa igeltsatu. Bala batek eragindako belauneko zauriak josi zizkidaten. Besaurrean eta belaunean zauri haien orbainak ditut oraindik ere.

Gero, bionboz bereizitako ohez beteriko areto batera eroan ninduten. Bakarrik nengoen. Negar eta negar egiten nuen. Gertatutakoa neukan buruan eta ezin nuen sinetsi, edo ez nuen sinetsi nahi. Zergatik zegoen hilik nire lagunik onena? Nork hil zuen? Zergatik? Zergatik egin ziguten tiro ezer egin ez bagenuen?... Negar etengabea, nire malako zaparradan, itolarrian nengoen. Ezin nuen ezer ulertu. Hamasei urte baino ez genituen, lagun minak ginen, beti elkarrekin genbiltzan, edozein gazte bezala gozatzen genuen... Baina gaba horretan gure bizitzak zapuztu egin ziren.

Goizaldeko ordu biak edo hirurak izango ziren Koldoren senideak zelan nengoen galdetzera etorri zirenean. Koldo kirotanoan zegoela esan zidaten,

“Apatamonasterioko zuzengunera sartzean, Ongarri pentsuen biltegia zegoen lekutik hur, bat-batean, metraileta tiro-hotsak entzun nituen.”

“Bidearen bestaldean, guardia zibil bat ikusi nuen. Hamarren bat metrotara, bigarrena. Batak besteari esan zion, ‘Ederra egin dugu!’”

“Ezin nuen ezer ulertu. Hamasei urte baino ez genituen, lagun minak ginen... Baina gaba horretan gure bizitzak zapuztu egin ziren”



larri, odol asko galdu zuelako. Ia zazpi ordu iraun zuen ebakuntzak.

Geroago, halako batean, hiru gizon etorri zitzaizkidan zer gertatu zen galdezka. Tiro egin zigutela esan nien, eta eurek erantzun: 'Nahi baduzu, putaseme horien kontra mendekua hartu dezazun armak ekarriko dizkizugu. Ospitalean gaude, baina Basauriko kartzelan egon gara eta lagundu zaitzakegu'. Nik bakean uzteko eskatu nien, atsedena hartu nahi nuela.

Goizean beste gela batera eroan ninduten eta, geroago, Koldo ekarri zuten. Egun horretan senideak eta lagunak etorri ziren bisitatzerara, baita hainbat kazetari ere. Horiei gertatutakoa kontatzean, guztiak bat zetozen gauza bera esatean: 'Atsekabetuta gaude, baina ezin dugu diozuena egunkarian idatzi; oso atsekabetuta gaude, benetan'. Eurek nahi zutena idatziko zutela pentsatu nuen, eta horrela izan zen. Egunkarietako izenburuetan zera zioten: 'Elorrioko gazte bat hilik, guardia zibilen kontrola salto egin ostean'. Dena gezurra, gezur galanta. Ezin nuen burutik kendu gau hartan ez zela kontrolik, ezta gelditzeko seinalerik ere. Arin ere ez gindoazen, eta inork ez zigun geratzeko agindu. Guardia zibilik ere ez genuen ikusi.

Hurrengo hilabeteetan oso txarto egon nintzen, ez nuen bizitzeko gogorik. Depresio latzean murgildu nintzen eta, garai hartan psikologoarengana jotzea ohikoa ez zenez, luzaroan nire mina irensten aritu nintzen.

Gertatutakoaz urtea betetzear zela, gure abokatuak zibiletik sartu zuen auzia. Baina, ez dakit zer dela-eta, auzia militarretik sartu behar zela esan zion familiari. Gertaeratik urte eta erdira Bilboko Garellanoko kuartel militarreara deklaratzera deitu ziguten. Koldo, haren emaztea, nire gurasoak, eta ni neu joan ginen. Banakako deklarazioak egin genituen, baina hondamendia izan zen. Koldo izan zen lehenengoa, besteok ondoko gelan geunden bitartean. Guardia zibilak ere agertu ziren deklaratzera. Gela berean egon ziren tarte batez baina laster irten zuten eta kanpoan itxaron. Deseroso antzean zeuden eta gertatutakoagatik gaizki zeudela pentsatu nuen. Bitartean, Koldo zegoen bulegotik oihuak eta garrasiak entzuten ziren. Nik ez nuen ulertzen gertatzen zena.

Ondoren nire txanda heldu zen. Gertatutakoa kontatzean, nire deklarazioa idazten ari zenak agirika egiten zidan, nire azalpenak eteten zituen, eta nagusikeriaz esaten zidan: 'Nola diozu ez zegoela argirik?! Zelan esaten duzu hori?!'. Bazirudien beldurtu egin nahi ninduela, edo nahasarazi, berak nahi zuena esan nezan. Hain handiak ziren nire beldurra eta nahaste-borrastea, ezen nire deklarazioa ez zen beste zerbait sinatu nuen. Adin txikikoa nintzen eta gurasoak ez ziren nirekin deklaratzera-koan.

Txarrena ezer egiterik ez zegoela pentsatzea zen, dena bertan behera geratuko zela. Gainera, aste batzuetara, Koldori isuna heldu zitzaion aginteari desobeditzeagatik. Biktimak geu ginen, baina! Ezin nuen sinetsi.



Horrelaxe itxi zuten kontua, ezer argitu barik, eta egia ezkutatuz. Nire lagunaren hilketa zigorgabe eta nik, urtetan, sufrimenduaren eta saminaren zama astuna neugan. Justizia nahi genuen, eta hainbat urte pasatu eta gero, uste dut orain izan daitekeela lortzeko unea.

Urte luzez hau guztiau isildu egin behar izan dut, baina nire bihotzeko zati bat itzali zen betiko egun hartan. Gogoan dut zelan batzuk esaten zidaten ‘Zelako suertea izan duzun, bizirik zaude!’. Baina nik gau hartan ni neu ere hil egin nintzela pentsatzen nuen.

San Juan gaua magikoa dela diote, eta beharbada hala da, ez dut ukatuko. Niretzat ordea, gau hori oso iluna eta tristea da. Nire semeek zer gertatzen zaidan galdetzen didate eta zaila zait erantzutea. Gertatutakoa azaltzea korapilatsua da. Beharbada lerro hauek baretzeko aukera emango didate, nahiz nire malkoek, orain ere, paper hau ere busti.

Barkatu egiten diet tiro egin zuten poliziei, baita tiro egiteko agindua eman zuenari ere.

Amaitzeko, José Emilio, Koldo, eta ni neu, poliziarren indarkeriaren biktimatzat hartzea eta agintariek egindako kaltea aitortzea nahiko nuke.

*José Félix Marías Maturana
Elorrion, 2021ean*

“Gertaeratik urte eta erdira Bilboko Garellanoko kuartel militarra deklaratzera deitu ziguten (...) Koldo zegoen bulegotik oihuak eta garrasiak entzuten ziren. Nik ez nuen ulertzen gertatzen zena”

“Gogoan dut zelan batzuk esaten zidaten ‘Zelako suertea izan duzun, bizirik zaude!’. Baina nik gau hartan ni neu ere hil egin nintzela pentsatzen nuen”





“Mi hermano era un chaval de dieciséis años”

Javier Fernández Pérez (Elorrio 1964) es el menor de de siete hermanos. Una familia de Elorrio, oriunda de Meano (Nafarroa), que quedó marcada de por vida el 23 de junio de 1978. José Emilio era dos años mayor que Javier y aquella víspera de San Juan fue a Durango a pasar la tarde con su amigo José Félix Marías. Josemi, así lo llamaban todos, nunca volvió a casa. Falleció ametrallado por la guardia civil en Apatamonasterio. Tenía dieciséis años.

Casi cuarenta y tres años después, Javier recuerda aquel día con una nitidez impresionante. Recuerda lo sucedido y lo que tuvo que pasar la familia después. La familia de una víctima olvidada, “una más”, como recalca Javier.

¿Qué sucedió aquel 23 de junio de 1978?

Recuerdo la última vez que vi a Josemi como si fuera hoy. Era sábado y en la tele estaban echando El pequeño Ruiseñor, de Joselito. Josemi iba a salir y le pidió a otro hermano que le prestara un jersey, uno verde con una franja marrón en el pecho. Estuvo bromeando con la madre a cuenta de una etiqueta

que tenía ese jersey. Después se fue a Durango con su amigo José Felix Marias.

“En algún momento se debieron de oír unos tiros cerca del cuartel de la Guardia Civil”

En Durango estuvieron en La Pantera (“La Pantera Rosa” era una dicoteca de Durango) y, ya de noche, se fueron a hacer autostop para volver a Elorrio. Se pusieron donde empieza la subida a Montorreta. Era el sitio habitual para hacer dedo. Más tarde, detrás de ellos, se puso otro conocido: Jorge Velasco. En algún momento se debieron de oír unos

tiros cerca del cuartel de la Guardia Civil, algo que les comentó Jorge Velasco a Marías y a Josemi. Se asustaron pero siguieron haciendo autostop hasta que paró Koldo Zenitagoia, un señor de Elorrio que conocía a Marías porque estudiaba con su hijo. Se prestó a llevarlos a Elorrio y también invitaron a subir a Jorge Velasco. Serían las 23:30, más o menos.

¿A qué se debían esos tiros que oyeron?

Un comando de ETA ametralló el cuartel de la guardia civil de Montorreta. Pero eso ellos no lo sabían.



Ellos montan en el coche de Zenitagoia y se dirigen a Elorrio.

Koldo Zenitagoia debía ser un señor que acostumbraba a conducir muy despacio. La carretera tampoco estaba tan iluminada como hoy en día. En Abadiño, después de pasar Andramari, a la altura de la central eléctrica, Jorge Velasco le pidió al conductor que lo dejará allí porque vivía en un caserío cercano. Y, después, entrando ya en la recta que va a Apatamonasterio, a la altura del almacén de Piensos Ongarri, ametrallaron el coche.

¿Ametrallaron el coche sin previo aviso?

Ni el conductor ni José Félix Marías vieron señal alguna de control ni nada semejante, eso lo han recalcado siempre. A mi me lo ha contado Marías, que es el único que vive hoy en día. Que empezaron a escuchar balazos por todas partes, que no paraban... Hasta que el coche, por inercia, paró en la cuneta unos metros más adelante. Josemi cayó sobre Marías, jadeando. Éste, salió del coche para pedir ayuda y vio a un guardia civil al otro lado de la carretera, y a otro que salía de la cuneta, como si hubieran estado escondidos. Gritó pidiendo auxilio y fue cuando escuchó cómo un guardia civil le decía al otro: “¡Buena la hemos hecho!”. Zenitagoia también trató de salir del coche pero cayó en el acto. Las balas le habían reventado los gemelos y no podía mantenerse en pie.

Entonces pasó un vecino de Elorrio que, al ver lo que pasaba, dio la vuelta y se acercó por si podía ayudar. Metieron en su coche a Marías y a Josemi, y se dirigieron al ambulatorio de Durango. Marías dice que ahí se dio cuenta de que no había nada que hacer, que Josemi estaba muerto.

La versión oficial siempre sostuvo que se habían saltado un control de la guardia civil.

Así es. Cuando al día siguiente, en el hospital de Basurto, tanto Marías como

Zenitagoia, a preguntas de los periodistas respondieron que allí no había control ni señal de ningún tipo, estos les dijeron que no podrían publicarlo. Y no lo publicaron.

Es más, se dá la casualidad de que había un radioaficionado de Elorrio que veinte minutos antes había oído una comunicación (de la guardia civil) que decía: “Seat 124 blanco, fuego a discrección”. El coche que había ametrallado el cuartel de la guardia civil de Du-



rango debía ser de ese modelo. El coche que conducía Koldo Zenitagoia era un Seat 850 especial blanco.

¿Cuándo supistéis lo que había pasado?

Yo tenía trece años. Me desperté en la noche y me dí cuenta de que todas las luces estaban encendidas y de que había mucha gente en casa. Me dijeron, más o menos, lo que había sucedido y que teníamos que rezar para que Josemi estuviera bien. Pero no había nada que hacer.

Mis hermanos fueron a Durango, querían ver el cuerpo de Josemi. No les dejaron hasta que se pusieron brutos. Estaba tapado hasta el cuello con una sábana. Uno de mis hermanos tuvo el reflejo de levantar la sábana y mirar. Lo que vio le afectó tanto que estuvo durante años con depresión o lo que fuera, porque entonces esas cosas ni se trataban.

¿Y tu padre y tu madre, como lo llevaron?

Muy mal. Sufrieron mucho, muchísimo. Como todos los hermanos y mi hermana.

1 Portada del periódico Unidad (26-6-1978).

2 Javier Fernández señala el lugar donde se colocó el monolito a Josemi.

DESPUÉS

El 24 de junio, domingo, todos los bares de Elorrio cerraron como señal de protesta por la muerte de Josemi y el ataque del que fueron víctimas Zenitagoia y Marías. Se convocó una huelga general para el lunes. También se hizo una colecta y con los fondos recaudados se colocó una cruz en el lugar donde Josemi cayó muerto. Se trataba de un hecho irreparable y doloroso para la familia y amigos, fruto de un error de la guardia civil. Pero la macabra historia unida a la muerte de Josemi, aún no había terminado.



La muerte de Josemi trajo cola para la familia.

El mismo día del funeral, para llevar el feretro de la iglesia al cementerio, había que pasar por delante del cuartel de la guardia civil. A mi hermano mayor lo tuvieron que agarrar. Los guardias tomaban actitudes provocadoras. Pero no acabo ahí. A mis hermanos les siguieron durante años. El teléfono lo tuvimos pinchado durante dos, tres... años. A veces, hablabas con los amigos y cuando colgaban se oía que después también colgaban. Recibimos varias llamadas. Una llamada anemanzándonos que nos iban a quemar la casa con nosotros dentro. Al día siguiente el timbre apareció quemado.

Otra vez vino la guardia civil a casa, que se querían llevar detenido a mi hermano Félix. Uno pequeñito, que lo recuerdo como si fuera hoy mismo, apuntando a mi madre con dos metralletas. Mi madre, pataleando y llorando les

“ Pero no acabo ahí. A mis hermanos les siguieron durante años. El teléfono lo tuvimos pinchado durante dos, tres... años”

decía: “Ya me habéis matado a uno, ¿Me váis a matar a otro”. El otro, con las dos metralletas, le dijo: “Pues, ya veremos, señora, ya veremos”. Otra noche a rezar. Sin embargo, esta vez, al de un tiempo mi hermano volvió a casa.



Los primeros años, la lápida que le pusimos en el cementerio aparecía con las letras borradas o manipuladas, porque estaban grabadas. No lo olvido porque fui yo quien propuso la frase para la lápida. Ahora no recuerdo si cogí la frase del recordatorio de Txiki, de Otaegi, o de dónde. La cuestión es que propuse que fuera: “Fuiste muerto a tiros y a sangre fría, el pueblo lo sabe y no lo olvida”. A la familia le pareció bien, pero un hermano sugirió añadirle una palabra: “Fuiste muerto, INOCENTEMENTE a tiros y a sangre fría, el pueblo lo sabe y no lo olvida”.

Todo eso suena a ensañamiento. ¿Por qué?

Sabían que con Josemi se habían confundido, pero aún así siguieron tratándonos como culpables. Creo que era una manera de amedrentarnos para que dejaráramos el tema quieto y no nos moviéramos.

RECORRIDO JUDICIAL

¿Qué recorrido judicial tuvo el suceso?

Nadie se puso en contacto con nosotros. Sé que Marías y Zenitagoia fueron a declarar, sin abogados ni nada. Además, Marías era menor de edad aún. Les hicieron admitir cosas que no eran, falsedades. El juicio se celebró tiempo después, por lo militar, en Burgos. No nos convocaron, ni a nosotros, ni a nuestro abogado. El resultado fue que declararon culpable a Zenitagoia por saltarse el control, y punto. Si nosotros queríamos reclamar algo teníamos que demandar a Koldo. Además, la sentencia era una chapuza y contenía errores de bulto como que el coche iba de Elorrio a Durango. Ni el día estaba bien recogido.

“ El resultado fue que declararon culpable a Zenitagoia por saltarse el control, y punto. Si nosotros queríamos reclamar algo teníamos que demandar a Koldo”



Alguien le aconsejó a mi padre que aquello no estaba bien y que podía hacer algo. Se presentó en el cuartel de Garellano de Bilbao y lo atendió un coronel. Creo que salió entre insultos y empujones. Y ahí quedó la cosa.

La víctima tratada como culpable.

Tal cual. Mi padre tenía relación con Koldo Zenitagoia y solían hablar de vez en cuando. Creo que a él, como es normal, le afectó muchísimo lo sucedido. Le pedía perdón a mi padre, aunque mi padre le dijera que no era él quien tenía que pedir perdón. Sé que Marías también lo ha pasado muy mal durante años.

¿Hablabáis de ello en la familia, con los otros implicados?

En la familia el tema no ha sido tabú, pero tampoco es que hayamos hablado mucho de ello. Lo hemos llevado con nosotros, pero la vida sigue su curso y hay que seguir adelante a pesar de que lo tengas muy presente.

“ Con Marías nunca había hablado del tema, aunque yo supiera quién era él, y él supiera quién era yo hasta ¡Treinta y ocho años después!”

Y, fíjate, con Marías nunca había hablado del tema, aunque yo supiera quién era él, y él supiera quién era yo. Así fue hasta que en 2016 contactamos con el Instituto Gogora a cuenta del informe que se iba hacer sobre las víctimas de violaciones de derechos humanos del 1960 al 1978. Nos hicieron unas entrevistas de valoración y coincidimos en Bilbao. Acabamos comiendo en Durango y hablando de lo que sucedió, de cómo nos afectó... ¡Treinta y ocho años después! Desde entonces tenemos una comunicación abierta. Un día también nos juntamos para cenar y hablar con los hijos de Koldo Zenitagoia.

A ti, personalmente, ¿cómo te ha afectado durante todos estos años la muerte de Josemi?

Mira, durante muchos años sentí odio, era natural sentirlo. Era una época en la que una semana caían unos y la otra otros. Inconscientemente, te alegrabas de unos y no de otros. Con el tiempo me fui dando cuenta de que un hijo de un guardia civil podía sentir lo mismo que yo. Que el que cometa el error tendrá su responsabilidad, pero que las víctimas son todas víctimas, sean de un lado o del otro. Hace años que dejé de sentir ese odio, y es muy importante para poder dar un paso adelante y empatizar con el otro. El odio no aporta nada.


Josemi fue reconocido como víctima en el informe del Instituto Gogora que has mencionado.

Sí. Y estoy muy agradecido al Instituto Gogora y al Gobierno Vasco por todo ello. Pero, sin quitarle su valor, lo considero un reconocimiento “de casa”. El reconocimiento verdadero tendría que venir de la parte responsable, del Gobierno Español, pero me temo que no sucederá.

Mi madre llegó a saber del reconocimiento de Gogora, pero mi padre no. Le oprimía el hecho de que alguien pensara que su hijo era culpable de algo. Quería que quedara claro que su hijo no había sido ni un delincuente, ni un terrorista ni nada semejante. Se fue sin conseguirlo.

¿Quién era Josemi?

Josemi era un chaval de dieciséis años. Había estudiado fuera, era espartañero y todo lo que quieras, pero no dejaba de ser un adolescente que tenía toda la vida por delante. Josemi era mi hermano.



1 Familia Fernández Pérez. El último día en Meano antes de trasladarse a Elorrio.

2 Texto que escribió Josemi el día anterior o el día de su muerte. Lo encontraron en la máquina de escribir.



“Nuestro padre no se saltó el control”

Mitxel y Jose Luis Zenitagoia Masach son hijos de Koldo Zenitagoia, el señor que conducía el coche ametrallado el 23 de junio de 1978. Deiciséis años tenía Jose Luís, diez Mitxel. Recuerdan que aquel episodio marcó a su padre tanto física como psicológicamente y, por extensión, afectó a toda la familia.

¿Qué contaba vuestro padre sobre la noche del tiroteo?

Mitxel: Él era protésico dental y trabajaba como autónomo. Así que, aunque fuera sábado por la tarde, aquel día fue a una casa de Durango a hacer algún trabajo. Era un hombre que le gustaba charlar y después de terminar su trabajo se quedó un rato. Hacia las once de la noche cogió su coche, un Seat 850 blanco, y se dirigió hacia Elorrio. Él habitualmente solía coger a jóvenes que hacían autostop, pero es que, en este caso, reconoció a Jose Félix Marías porque estudiaba en los Jesuitas con mi hermano Jose Luís. Se subieron al coche Marías, Josemi (Jose Emilio Fernández Pérez), y Jorge Velasco. Parece que habían ametrallado el cuartel de la guardia civil de Durango y el coche era un Seat 124 blanco.

José Luis: En Andra Mari, Abadiño, a la altura de la central eléctrica, Jorge Velasco le pidió a mi padre a que lo dejara allí. Se bajó y cruzó la carretera por delante del coche. Mi padre reanudó la

marcha y a unos trescientos metros empezó el tiroteo.

M: Era una noche muy oscura y no había señalización ni nada por el estilo. A Josemi lo pillaron de lleno. A Marías lo

hirieron, y a mi padre le dieron en el gemelo izquierdo con aquellas balas que estaban prohibidas porque explotaban dentro. Nada más salió del coche, se desplomó. “Buena la hemos hecho” parece que le dijo un guardia al otro.

¿Cómo os enterastéis de lo sucedido?

J.L.: Yo estaba cenando en Berrio con la gente del barrio después de organizar las fiestas de San Juan. Me llamaron allí. A mi padre ya le habían llevado a Basurto. De esa noche no guardo recuerdos muy precisos. De la mañana siguiente sí. Lo recuerdo porque fui en taxi a Basurto, y el taxi había que cogerlo en la plaza, que estaba hasta arriba de gente protestando por lo que había sucedido.

M: Yo recuerdo de esa mañana que estaba en casa con mi abuela materna y llamaron al timbre. Abrí y era un periodista. Yo tenía solo diez años. Recuerdo que esos días hubo movilizaciones en Elorrio. Creo que se hizo una marcha desde el pueblo hasta donde les tirotearon.



1 Koldo Zenitagoia Madariaga.



A vuestro padre le tuvieron que hacer una operación larga en Basurto.

J.L.: Así es. Me acuerdo que cuando llegué a Basurto estaban mis primos allí. En la habitación en la que estaban mi padre y Marías habían metido a un guardia civil que había sufrido un atentado. Se montó un follón y lo sacaron de allí. Había mucha gente, vinieron periodistas...



¿Cuánto tiempo estuvo ingresado?

M: Un par de meses por lo menos. Luego ya, la rehabilitación y eso, pues toda la vida. Necesitó una cachaba para caminar.

También le afectaría psicológicamente.

J.L.: Siempre lo tuvo presente. Mataron a un chaval en el coche que él

conducía, un chaval de mi edad. Hablaba mucho con el padre de Josemi, y aunque éste siempre le dejó claro que él no era para nada culpable, mi padre era un hombre muy recto y eso le dolía.

M: Y, claro, la versión oficial decía que él se había saltado un control, ¿entiendes? Si no había ni señalización ni nada...

J.L.: Se publicó algún croquis en la prensa de la época y mi padre lo tenía corregido por encima en rojo.

¿Qué sabéis del juicio?

M: Parece que al final fue un juicio militar. Marías cuenta que en una declaración previa, cuando mi padre estaba dentro, oía cómo le gritaban. Le corregían o negaban cosas... Además, Marías era menor y declaró sin abogado y sin presencia de un adulto. Resumiendo, que declararon a mi padre culpable de haberse saltado un control que no existía.

J.L.: Más tarde, le vino a la consulta a mi padre un guardia civil del cuartel de Durango. Le debió decir que fue culpa de los agentes pero que se lo decía a título personal.

Fue reconocido como víctima de abusos policiales por el Gobierno Vas-

co después del estudio del Instituto Gogora.

J.L.: Sí. Fui con mi madre porque me llamó Marías que estaban con ese estudio. Estuvo bien. Pero es una pena que mi padre no supiera de ese renacimiento ni del reconocimiento anterior por haber estado en Batallones de Trabajadores. Lo intentó en vida y no se lo dieron. Falleció en diciembre de 1987. Todo ha llegado después.

M: Y, además, el reconocimiento de verdad les corresponde a otros. Estos días que han salido las grabaciones del caso Zabalza, de Lasa y Zabala... Pienso muchas veces que en algún lugar, en algún documento, tendrá que estar recogido lo que sucedió a aquella noche. Sé que es difícil, pero...

A nivel institucional, en Elorrio por ejemplo, ¿se sintió arropado?

J.L.: Bueno... Mi padre se llevaba muy bien con la gente por su carácter. ¿El ayuntamiento? Hubo un concejal, Vicente, "Trauski" que se portó muy bien, y ya se lo dije en persona a él. Por lo demás...

M: Hubo un partido político que se ofreció a comprarle un coche, pero se negó. No quería deberle nada a nadie.

Y a vosotros, ¿Cómo os ha afectado lo que le sucedió a vuestro padre?

J.L.: En su día claro que nos afectó. De todos modos, mi padre siempre decía que no odiara, que eso no llevaba a nada. Entonces, creo que cada uno lo lleva a su manera.

M: Yo creo que si he sentido odio. Ahora ya, es más rabia. Rabia porque no se haya aclarado nada. Rabia porque, desde entonces, y todavía hoy, de vez en cuando tienes que oír eso de "Tu padre se saltó el control, ¿No?"... Duele. Y, luego, en un plano más general, a mi personalmente, me ha llevado a dudar mucho de eso que llaman la versión oficial.

Tiroteo contra un vehículo en Apatamonasterio: un muerto y dos heridos

No paré porque no vi el control, afirma el conductor

CROQUIS OFICIAL

Información: páginas cuatro y cinco.
Nota oficial: última página.

LA PRORROGA GANÓ A HOLANDA (3-1)

ARGENTINA se quedó con su Mundial

Los guardias estaban colocados en Apatamonasterio, y arropados, uno, dos, tres...

Este croquis está mal diseñado! No es verdad!

LEYENDA:

A) - Situación del Guard-Rover Estrecho de la Guardia Civil, señalado según el croquis (imagen superior del día 30/03/36).

B) - Tortura ELIZABETH, con indicación de la localización seguida por el mismo, después de su liberación el control, desdoblándose la señal de alto hasta por el momento.

C) - Situación del guardia que efectuó los disparos, con indicación del punto donde se halla afectado.

D) - Puesto fijo del control.

E) - Situación de las gasolinas que rodeaban el control.

NOTA: - Todos los vehículos cargados con proyectiles. Asimismo, los camiones utilizados por la Guardia Civil en estos controles tienen las mismas características, aptitudes para los vehículos de alto con interruptores manuales.

El resultado de este trámite surgen la vida una persona muerta y dos heridos. En el momento de redactar esta información, los hechos continúan investigándose. Durante todo el día la localidad de Elorrio vivió por una jornada de alta tensión, incidentes, bombas, con recipientes negros, etc.). Hubo asustados y se trató de evitarlos hoy no para total como previsto.

(PÁGS. 4 y 5)

2 Estado en el que quedó el Seat 850 de Zenitagoia después del ametrallamiento.

3 Croquis publicado en La Hoja del Lunes con anotaciones y correcciones de Koldo Zenitagoia.



1

Koldo Zenitagoia: bere historia zuen gidaria

1978ko San Juan bezperan tirokatu zuten autoa gidatzen zuen gizonak ere bazuen bere historia. Haren bidaia askoz lehenago hasi zen eta gerra, kartzela eta zigorra ez zitzaizkion arrotz.

1914ko abuztuaren 20an jaio zen Elorrión Imanol Koldobika Zenitagoia Madariaga familia abertzale batean. Aita, Cristobal Zenitagoia Arieta-Orbe, 1907. urtean Elorrioko Batzokia sortu zutenetako bat izan zen. Ama, Angelita Madariaga Fuldain, Arrasatekoa jatorriz, Elorrioko Emakume Abertzaleen Batzako presidentea izan zen 1931tik gerra hasi artean. Euren etxea izan zen STV sindikatuaren Elorrioko lehenengo egoi-



2

tza, eta bertan ematen zituen euskerazko eskolak Angelitak. Ez da harritzekoa, beraz, Koldok (horrela ezagutu dute Elorrión) bere burua abertzaleztat izatea gazte gaztetarik.

ELORRIOTIK KANPORA

1923an Primo de Riverak ezarritako diktaduratik ihesi, Zenitagoia-Madariaga familiak Hendaiara jo zuen. Koldo eta Miren Itziar arreba Lapurdin bizi izan ziren gurasoei batera harik eta, Primo de Riverak boterea utzi, eta 1930ean Elorriora bueltatu ahal izan zuten arte. 1931ko udal hateskundeetan Cristobal Zenitagoia zinegotzi kargurako hautatu zuten EAJren ordezkari legez. 1936an Franco eta militarrek sublebatu ziren garaian alkate-ordea zen. 1937ko martxoaren 24an, gerra frontea bertan zela, Julian Ariño alkateak baja eman eta Elorrioko alkate izandatu zuten Koldoren aita. Ez zion luze iraungo karguak.

OTXANDIOTIK ELGETARA

Koldok hogeita bi urte zituen Franco eta haren militar lagunak sublebatu zirenean. Laster izango zuen haien txikizioen berri ze, 1936ko uztailaren 22an, Santamaña egunez Otxandio bombardatu zutenean, boluntario joan zen zaurituak ebakutzera. Ikusitakoak ikusita, Durangora jo eta Kirikiño batailoian eman zuen izena. Sargentu graduarekin iritsi zen frentera, eta ez badaezpadako lekura, etxetik gertu. Elgeta eta Kanpazar artean tropa frankisten erasotea eustea egokitu zitzaizen zenbait hilabetez. Karabieta inguruan batailoiko tenientea larri zauritu eta Koldo izendatu zuen haren hurrengo hil aurretxoan.

ATZERA ETA ATZERA


Frankisten ofentsibari ezin eutsita, itzulerarik bako atzerabidea hasi zuten, bai eusko gudarosteek eta baita Koldok berak ere. Bonbardaketak txikitutako Durango ikusi zuen. Handik Oizera, Bizkargira gero. Apirilaren amaierarekin Gernikan hondakinen azpitik zaurituak eta hildakoak ateratzen ibili ostean, Sollubera, Fikara, Artxandara... Bilbo faxisten esku zegoela, beti mendebalderuntz, San Roken eta Entrambasaguasen (Mena harana) burrukatu ziren. Limpiasen, Kantabriako lurretan ordurako, gaixotu eta ospitale militarra eroan zuten. Santanderreko La Magdalenan hartu zuten preso frankistek. Hantxe

1 Koldo Zenitagoiak gurasoei Santoñaako kartzelatik bidalitako argazkia.

2 Angelita Madariaga Fuldain eta Cristobal Zenitagoia Arieta-Orbe (Koldoren gurasoak).



bukatu zen gerra, bai Koldorentzat, eta baita beste hainbat gudarientzat ere. Ostetik etorri zena ez zen bakea izan.



PRESO

Tropa frankistek gatibu hartuta, Santanderreko zezen plazan izan zituzten preso zientoka lagun zenbait egunez. Handik, itsasontzi batean sartu, eta Santoñako kartzelara. Askatasunik eza nahikoa zigor ez eta presoekin osatutako zigor batailoietan Santoñako padurak harez betezen aritu behar izan zuen.

Egun batez sutea izan zen Santoñako kartzelan eta Koldok moja bat eta zenbait preso salbatu zituen garretan erretzetik. Egindakoaren sari, bi bandoen arteko preso truke batean sartuko zutela agindu zioten baina truke hori ez zen egundo gertatu. Koldok bere eskuz idatzitako testu batetik dakigu 1939ko uztaillean utzi zutela libre Kataluniako Ordal herrian (177. langileen zigor batailoian zegoen).

BILBO

Lutxanan bizi zituen gurasoak ordu-rako eta arreba mugaz bestalde erbes-

teratua. Goian zerua eta behean lurra zegoen familia. Euren ondasunak eta kontuak konfiskatuta izateaz gainera, Elorriora itzultzeko debekua zuten gurasoek. Nuñez delako bat (Elorrioko Falangeko burua) zegoen euren etxeaz jabetuta. Gauzak horrela, ezinbestean, beste bizitza bati ekin zion familiak Bilbon. Dentistak ziren lehengusu batzuekin hasi zen lanean Koldo.

1945ean berriro atxilotu zuten. E.I.A-ren (Euzko Ikasle Alkartasuna) argitalpen klandestino batekin lotu zuten eta Larrinagako kartzelan beste egotaldi bat egin zuen. Berarekin batera atxilotutakoen familiak baziren nor, antza, eta baldintzapeko askatasuna lortu zuen denboragarrenera.


GURASOEK ELORRIORA GURA

Denbora aurrera zihoan eta Koldok Bilbon bere bizia atondu samarra bazuen ere, gurasoek ezin zuten burutik kendu Elorriora itzultzeko ideia. Miren Itziar arreba saiatu zen Elorriora joan eta udaletxean horretarako paperak lortzen. Udalean harrera egin behar ziotenak Circulo Carlista tabernan zeuden, baina. Handik esan ei zioten paperen bila joana bazen alperrik egongo zela zain, ez ziotela ezer emango. Malkoak eta amorrua irentsi eta Bilbora itzuli zen.

Errejimenean ondo kokatuta zegoen gizon baten ezagupidea egin zuen Koldok eta hari esan zion familiaren Elorrioko ondasunak konfiskatuta zeudela. Berandu barik etxea berreskuratuko zutela agindu zion, eta halaxe izan zen.

Hamasei urte luze beranduago itzuli ahal izan zuen familiak herrira.

Edozelan ere, itzulerak gozotik beste, edo gehiago, izan zuen garratzetik. Irabazleen bandokoez ez zituzten gozo hartu eta, euren bandokide izandako zenbaitek ere, gurago izan zuen, badaezpada, agerian behintzat, harreman handirik izan ez. Koldo bera halako gertakarien lekuko izan zen behin baino sarriago. Gogorra izan zen gurasoentzat. "Dena eman zuten eta ez zuten ezer jaso" utzi zuen idatzita Koldok.



Franco hil ostean, Batzokia berriro inauguratu zenean, han agertu zen Koldo. Bertan ikusi zituen zenbait ikusita, alde egin eta ez zela gehiago joango esan ei zuen. Baita egin ere. Sabino Arnaren "Jaungoikoa eta Lagi Zarraren" jarraitzailetzat izan zuen beti bere burua.



3 Koldoren zenbait bizipen biltzen dituen eskuizkribua.

4 Saturnino Nuñezi etxea Zenitagoiatarrei itzultzeko agindu agiria.

5 Gudariak Larrean 1937 (Koldo erdian zutunik).

6 Koldo beste gudari batzuekin 1937.



Atearen ostetik plazara: frankismoak kartzelaratutako Mañariko 13 emakumeei memoria eta errekonozimendua

1

Testua: **Julen Orbegozo**


1936ko altxamendu faxistaz eta haren ondoriozko errepresioaz berba egiterakoan, sarritan, gizona bezala irudia datorkigu burura. Errepresioak, baina, jendarte bateko elementu guztien kontra jotzen du Mañariako emakume kartzelaratuak kasuak agerian uzten duen bezala.

Ferroleko Artxibo Militarrean jasotako datuen arabera, 1937 eta 1945 urte artean, 32.100 espediente ireki zituzten agintari frankistek Bizkaian. Zubiaga-Aranaren (2016) ikerketak jasotzen duenez, datu horietan gorabeheraren bat egon daiteke, baina frankismoak abiatutako errepresioari neurria hartzeko balio du. Jendartea “depuratzeko” bitarteko bat zen espedienteak irekitzea, jendea kartzelara eroatea, edo fusilatuta akabatzea ere, errepresioaren bitartekoak ziren legez. Hala, Bizkaiko jendartearen %6 inguruk prozesamenduren bat sufritu zuela esan daiteke aipatu ikerketaren arabera.

“Jendartea “depuratzeko” bitarteko bat zen espedienteak irekitzea”

Illo horretatik, frankismoak eraiki gura zuen estatu berriaren oinarriak

sendotzeko emakumeen aurkako errepresioa ere erabili zuen. Frankismoarentzat ezinbestekoa zen, besteak beste, emakumeek gerra aurretik izandako parte-hartze politiko oro gogor zigortzea. Hain justu, Errepublikaren aurka al-



txatu ziren faxistek genero politika argia zuten: emakumeek familiaren zaintza lanetan eta etxeko esparru pribatuan egon behar zuten. Hala, espazio publikoan inolako protagonismorik ez zeukan emakume-emaztearen arketipoa eraikitzeko bitartekoak jarri zituen (Moliner, 2004).

“Espazio publikoan inolako protagonismorik ez zeukan emakume-emaztearen arketipoa eraikitzeko bitartekoak jarri ziren”

Azken urteotan, emakumeak erreprimitzeko frankismoak abiatutako mekanismoak gero eta arreta handiago ematen ari zaie ikertzaileen aldetik (Egido-León, 2011). Urte askoan, Erre-

1 Mañariko emakume errepresialatuei omenaldia (2020/10/24).

2 Expediente judiciala.



Goian: Maxima Arteaga Bilbao, Carlota Goiti Zugazagoitia, Antonina Gorospe Petralanda, Angela Aldekoa Orozketa, Clara Goiti Zugazagoitia, Miren Edurne Bustintza Ituarte, Ageda Goiti Arteaga.

Behean: Salome Arteaga Uriarte, Teresa Subinas Kapanaga, Julia Bizkarra Usabiaga, Irene Bizkarra Usabiaga, Jesusa Kapanaga Artamendi, Ramona Barrenetxea Sagarraga.

publika garaian eta borroka antifaxistan emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa inbisibilizatu izan da. Frankismoan bizi izandako garaiaren ondorioetako bat izan daiteke hori, Maria Gorosarri (2020) irakasle eta ikerlariak dioen moduan, “faxistek erabilitako errepresioaren oinarria emakumeen militantziaren izatera politikoa ukatzea baitzen”.

Bada, inbisibilizazio horrekin bukatzeko eta emakumeek egindako ekarpen politikoa balioan jartzeko, Mañariko Udalak ekimena abiatu zuen 2019an. Gerediaga elkartearekin batera, 1937ko uztailaren herrian izandako gertaera bat ikertzea erabaki zuen. Zaharrenek modu pribatuan kontatutako errelato solteen arabera, indar militar faxistak Mañarira joan eta zerrenda batean agertzen ziren emakumeak eraman zituzten atxilotuta, kamioneta zahar batean. Hala, ikerketa abiatu zen gerra bukatu ostean frankismoak herriko ze emakume kartzelatu zituen ezagutzeko.

Ikerketak ondorioztatu zuen Mañariko 13 emakume atxilotu zituela frankismoak eta Larrinagako kartzelan sartu zituela hilabete batzuek. Euretako 10 egun berean atxilotu zituzten, 1937ko uztailaren 29an. Hamar emakume horien kasua berezia izan zen, sarekada

berean atxilotu zituztelako eta gehienak onartu zituztelako Euzko Alderdi Jeltzalearen baitako Emakume Abertzale Batzako kideak izan zirela.

“Atxilotutako gehienak Euzko Alderdi Jeltzalearen baitako Emakume Abertzale Batzako kideak izan ziren”.

10 emakume horiek hurrengoak izan ziren: Clara Goiti Zugazagoitia, 40 urterekin, eta zazpi seme-alabaren ama zelarik. Ageda Goiti Arteaga, 38 urterekin, eta lau seme-alabaren ama zelarik. Teresa Subinaz Capanaga, 49 urterekin. Maxima Arteaga Bilbao, 34 urterekin, eta 4 seme-alabaren ama zelarik. Antonina Gorospe Petralanda, 32 urterekin, bi seme-alabaren ama zelarik. Carlota Goiti Zugazagoitia, 30 urterekin, 4 seme-alabaren ama zelarik. Angela Aldekoa Orozketa, 30 urterekin. Salome Arteaga Uriarte, 28 urterekin, alaba batekin eta haurdun zegoela. Julia Bizkarra Usabiaga, 20 urterekin. Irene Bizkarra Usabiaga, 18 urterekin.

Bost egun arinago Ramona Basterretxea Sagarraga eraman zuten kartzelara. Eta Gainerako bi emakumeak Mañariarekin loturaren bat zuten arren, beste herriren batean atxilotu zituzten: Jesusa Kapanaga Artamendi (Durangon) eta Miren Edurne Bustintza Ituarte (Bilbon).

Behin izenak topatu ostean, udalaren erabakiz, omenaldia egin zitzaizen memoria egiteko. Omenaldiaren muienean dokumental baten emisioa egitea erabaki zen. Hartara, Gonzalo Laka historialariak Gerediagaren babespean egindako ikerketa lana abiapuntutzat hartuta, atxilotuen senitartekoei sakoneko elkarrizketak egin zitzaizkien, hurrengo arloei buruzko testigantzak batzeko: atxiloteta momentua, kartzela epealdian bizi izandakoa, askatasuna eskuratu osteko bizipenak, emakume horien militantzia politikoa eta euren perfil pertsonala. Dokumentalean Monica Calvo eta Gurutze Ezkurdia ikerlariak ere parte hartu zuten.

Finean, atearen ostean gordeta egon den errepresio frankistaren pasarte hau plaza publikora ekartzeko balio izan du proiektuak. Mañariko 13 emakumek gerra aurretik eta gerra bitartean egindako ekarpen politikoari merezitako errekonozimendua egin zion herriak.

Egido-Leon, A. (2011). *Mujeres y rojas: la condición femenina como fundamento del sistema represor*. *Studia Historica. Historia Contemporánea*, 29, 19-34. <https://bit.ly/2ZTAB09>

Molinero, C. (1998). *Mujer, franquismo, fascismo. La clausura forzada en un “mundo pequeño”*. *Historia social*, 97-117. <https://bit.ly/3aRb4uV>

Zubiaga-Arana, E. (2016). *La formación del régimen franquista en Bizkaia. Represión, políticas de captación y actitudes sociales (1937-1945)*. *Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea*. <https://bit.ly/2Pah0XG>

Gorosarri, M. (2020). *Un futuro de hace 80 años*. *Mugalari*. <https://bit.ly/3dFBgut>



Orain 80 urteko etorkizunaz

Durangoko emakumeen kartzelaz

Testua: **Maria Gorosarri (EHUko irakaslea eta Durango 1936 KEko kidea)**

Durangoko espetxea itxi zutela 80 urte bete dira aurten. Bertara Estatu osoko andreak ekarri zituzten. Durangotik alde egindako Nevers mojen komentuan ipini zuten faxistek espetxea. Andrentzako espetxeek ez zeukaten kartzela itxurarik. Zergatik? Andrei gizartean politikoki parte hartu izana ez aitortzeko. Faxismoari aurre egin zioten andrak gutxiesteko, erregimenaren delitu berrien arabera zigortutako beste andrekin elkartu zituzten (Errepublikak abolitu zituen lege-hausteak, alegia): abortatu edo modu askean prostituitzea (erregimenak andren prostituzioa bakarrik arautu zuen, baldin eta proxenetaren kontrolpean gauzatzen bazen).

“Faxismoari aurre egin zioten andrak gutxiesteko, erregimenaren delitu berrien arabera zigortutako beste andrekin elkartu zituzten”

Horregatik, presoek ez zioten espetxe esaten, “androntzako biltegi batean” pilatu zituztela azaltzen zuten. Dutxa barik, egunean basobete ur baino ez (edateko

edo garbitzeko), ohe barik, aldatzeko arropa barik, eta umeekin zoruan lo egin behar izaten zuten. Gainera, gosearen bitartez, erregimenak hilekoa kendu zien, heldutasun osasuntsurako ezinbestekoa dena eta militante gazteentzako mehatxu legez erabili zena: seme-alabarik izango ez zutela sinistu eragiteko, borrokan amore eman zezaten.

Presoek espetxean erresistentzia sistema eratu zuten, hirusun antolatuta. Lehen preso militarre gaztea izaten zen, andren aurkako errepresio espezifiko ulertzen zuen kontzientzia politikodun aktibista, eta irakurtzen zekien taldekide bakarra. Bigarren preso andra nagusia izaten zen (60, 70 edo 80 urtekoa), premiarik handiena zuen haletako. Hirugarren taldekidea bertako preso bat izan ohi zen, kanpotik pakete gehiago jasoko zituelakoan, beste bi presoekin partekatzeko.

Durango 1936 Kultur Elkarrekin Durangoko espetxean giltzaperatu zituzten 300 militarre antifaxistaren izenak bildu ditu orain arte baina argi dago askoz gehiago izan zirela.

Emakume Durangarren elkartasuna

Andren aurkako errepresioaren oinarria gure militantziaren izaera politikoa ezabatzea zen. Erru bako andreak, ezjakinak, ideologia bakoak... esatean, Errepublikako bizitza sozio-politikoan eta borroka antifaxistan parte hartu izana ezkatzea da helburua. Andrak menderatzeko faxisten estrategia gauzatzea da, azken finean. Izan ere, faxisten garaien zauria erakusten zuen Durango minduan, hainbat eta hainbat gizon espetxeratu eta eraildakorekin, herrian antolatuta zen erresistentzia antifaxista andrena izan zen. Durangar batzuk eza gutzen ez zituzten espetxeko militantek bisita egitera konprometitu ziren, haien familiak urrun bizi zirelako edo hil egin zituztelako. Bisitak eta iragan antifaxista partekatzen zituzten.

Durangoko espetxearen itxieraren 80. urteurrenean, orduan andren biltegietan abere moduan sartuta, baina etsitako gizarte batean militante ikusezin izateari uko egin zioten andre horien guztien duintasunaren arabera etorkizuna gura dugu.



Muertes y nacimientos en la cárcel de mujeres de Durango

Texto: **Jimi Jimenez (miembro de la sociedad Aranzadi)**

La cárcel de mujeres de Durango, en 1940, fue un centro penitenciario fascista por el que pasaron más de 400 mujeres. Las causas de los fallecimientos están íntimamente ligadas a las duras condiciones de vida de las reclusas, la dureza del centro y las pésimas condiciones que tuvieron que sufrir las mujeres encarceladas y los hijos e hijas de algunas de las prisioneras.

Entre primeros de marzo de 1940 y mediados de octubre de ese año fueron 15 las personas que dejaron su vida en Durango, concretamente seis mujeres adultas, cuatro niñas y cinco niños, todas ellas y ellos hijos de las reclusas.

Por lo general las causas de los fallecimientos están íntimamente ligadas a las duras condiciones de vida de las reclusas, tanto higiénico-sanitarias como alimentarias, y de falta de abrigo y de asistencia médica adecuada. Las dolencias de origen respiratorio golpearon fuertemente a las personas de menor edad.

El enterramiento de las personas que morían en la prisión se realizaba en el cementerio de Durango. Las mujeres adultas fueron inhumadas en la zona denominada San Vicente; las niñas y niños recibieron sepultura en la calle Santo Tomás.

Pero también se produjeron nacimientos y bautizos. Concretamente en los días 14 de abril y 4 de julio de ese 1940 fueron bautizadas 9 niñas y niños. Mayormente, estos nacimientos tuvieron lugar tiempo atrás, en 1938 y 1939, fuera de Durango. Solo tres hijas e hijos de reclusas que estaban en Durango nacieron días antes a su bautismo. El caso de la niña María Luisa Bernardeta Sarco es significativo, ya que se puede constatar que su madre Enoeme (o Noemí) García ingresó en la cárcel procedente de la prisión provincial de Toledo en enero de 1940, en un avanzado estado de gestación.

PERSONAS ADULTAS, ENTERRADAS EN LA CALLE SAN VICENTE DEL CEMENTERIO MUNICIPAL

3 de marzo 1940	Salvadora Gómez Rodríguez	21 años	Apoplejía cerebral
2 de junio de 1940	Dolores Castelló Solsona	53 años	Insuficiencia mitral
5 de julio de 1940	Guadalupe Gargallo Alegre	32 años	Tuberculosis intestinal
8 de julio de 1940	Eugenia Hinojosa Peces	20 años	Bronconeumonía
11 de julio de 1940	Nieves Martín Ros	56 años	Nefritis crónica
14 de octubre de 1940	Eustaquia Pérez López	22 años	Auto intoxicación

FALLECIMIENTOS INFANTILES, ENTERRADOS EN LA CALLE SANTO TOMÁS DEL CEMENTERIO MUNICIPAL

25 de abril de 1940	Vicenta Rubio Álvarez	6 meses	Miocarditis
25 de abril de 1940	Ángeles María Lourdes Lancha Carmena	11 meses	Bronconeumonía
10 de junio de 1940	Manuel Arana Eguiñu	6 años	Bronconeumonía
1 de agosto de 1940	Antonio Cáceres Frontelo	6 meses	Bronquitis aguda
17 de septiembre de 1940	Anastasia Ancos Cuesta	6 meses	Bronconeumonía
27 de septiembre de 1940	José Luis Méndez Lerma	3 meses	Atrepsia infantil
4 de octubre de 1940	Alejandro Jimeno Montoliu	8 meses	Meningitis
14 de octubre de 1940	Néstor Marín Bayón	20 meses	Endocarditis
15 de octubre de 1940	Victoria Gálvez Espinosa	10 meses	

LIBRO DE BAUTISMOS DE LA IGLESIA DE SANTA ANA DE DURANGO José Ángel Orobio-Urrutia - Archivo municipal de durango

BAUTIZO	NOMBRE	NACIMIENTO
14 de abril de 1940	Luisa Jesusa Cabanillas y Bayón	20 de noviembre de 1938, Puebla de Alcocer
14 de abril de 1940	María Natividad Teresa Espadas y Gómez	2 de julio de 1938, Almagro
14 de abril de 1940	M ^a Mercedes Lourdes Ángeles Lancha y Carmene	19 de mayo de 1939, Polán (Toledo)
14 de abril de 1940	Carmelo Manuel Navarro y Lancha	16 de abril de 1939, Polán (Toledo)
14 de abril de 1940	María Luisa Bernadeta Sarco García	27 de marzo de 1940, prisión de Durango
14 de abril de 1940	Ramón Julián Jaime de Las Heras y Valencia	25 de marzo de 1940, prisión de Durango
4 de julio de 1940	Carmen Victoria Magdalena Galvez Espinosa	17 de diciembre de 1939, prisión de Villa del Prado (Madrid)
4 de julio de 1940	José Luis Alfonso Méndez y Luna	20 de junio de 1940, prisión de Durango
4 de julio de 1940	Eugenio José Antonio Gallego Valbuena	16 de marzo de 1938, prisión de Ventas (Madrid)

vico de la...
indeseable que ha tenido una actuación...
ndo tomado parte en los registros domiciliarios...
etc.. Se cree que trabaja en la actualidad en
lleres de armería en Elgoibar; actuación amena-
derechas. Capital 3,000 pesetas.
Berriz a 14 de Julio de 1.937
La Comisión

Felipe Alberdi
Gregorio Arguinzoniz
Balbino Unzueta
José Cruz Amezueta

BERRIZKO FUSILATUAK

Texto: **Maite Arrizabalaga y Valentín Esteban**

Las tropas rebeldes entraron en Berriz el 25 de abril de 1937. La enorme ola de represión consecuente, perfectamente programada por el nuevo poder, fue la causa directa de los fusilamientos de José Aguirre López, Gregorio Urquijo Alberdi y Felipe Urtiaga Eguren.

Con la toma del pueblo, las autoridades franquistas deciden una nueva corporación municipal. Los ediles elegidos son vecinos adeptos al poder militar fascista sublevado y dispuestos a seguir las directrices de represión. Felipe Alberdi Gaztelurrutia es nombrado nuevo alcalde. Este alcalde, en su escrito del 30 de junio de 1937 dirigido a instancias judiciales militares golpistas, asume y dirige las denuncias contra los vecinos: "Tengo el gusto de incluirles la relación de los individuos que se han presentado del campo rojo... al objeto de que se tomen medidas...". Además, decide constituir un grupo especial de concejales que denomina La Comisión. Su objetivo, ejecutar y firmar las denuncias de los vecinos vencidos. Van a ser decenas y decenas de ellas. Representan y firman las denuncias normalmente bajo el epígrafe La Comisión: Felipe Alberdi, Agustín Oguiza, Gregorio Arguinzoniz, Balbino Unzueta y José Cruz Amezueta. A partir de este momento, muchos berriztarras apodaran al alcalde Felipe Alberdi como "el verdugo".

El terror se extiende por el pueblo ante esta venganza organizada que se reviste de una parafernalia de justicia militar. Represión que cuenta también con la connivencia y colaboración de la Iglesia Católica institucional y local.

Comienza la caza del enemigo, de los no adeptos al nuevo régimen. Acusaciones con cualquier tipo de calificativo valen, aunque prefieren el de rojo y/o separatista. Muchos vecinos son detenidos y encarcelados. Ante la impotencia, algunos huyen, otros se esconden en los barrios, otras, porque se trata principalmente de mujeres, van a demostrar su valor significándose y tragándose el orgullo. Intentan conseguir certificados favorables de sus parejas y familiares encarcelados. Buscan por todos los medios, desesperadamente, salvarles la vida. Recurren a personas significadas de derechas, a falangistas, a la marquesa del pueblo, al cura. No siempre conseguirán su clemencia. Muchas familias viven en continua angustia.

Testimonios recogidos cuentan como el miedo y la tensa espera convirtieron a Berriz en un pueblo en silencio durante meses y meses.

Un cuarto fusilado fue Fermín Aranguren Alberdi, nacido en Berriz en 1902 pero viviendo en Soto de Luiñan, Asturias. Apresado en 1938 fue fusilado el 10 de agosto de 1939 en Gijón, tras un juicio militar sumarísimo ilegítimo.

A continuación, y para mostrar la verdad de lo ocurrido, recordaremos parte de sus vidas y las criminales circunstancias que los llevaron a ser víctimas del franquismo. Lo que relatamos a continuación y las fotos son una pequeña parte de los testimonios y de la documentación dirigida a la justicia argentina. El pasado 11 de septiembre de 2018 estos fusilamientos fueron denunciados por los familiares y la totalidad del pleno del Ayuntamiento de Berriz ante la justicia de ese país como crímenes de lesa humanidad personándose en la Querrela Argentina contra los crímenes del Franquismo.



JOSÉ AGUIRRE LÓPEZ

Nacido en Eibar el 14 de octubre de 1903, trabaja toda su vida en la fábrica de bicicletas Orbea de ese pueblo. Sus descendientes piensan que, como muchos de sus compañeros, estaba afiliado a la UGT.

Se casa con María Milagros Zabala Iturriagagoitia de Berriz afincándose en la calle "Kaleja" de esta localidad. Tienen una hija, Esperanza, y un hijo, Jesús.

Tras el golpe de estado y como en otros lugares dada la evolución de la guerra, se crea en Berriz un Comité de Defensa Local, y José es nombrado Guardia Cívico. Lo preside el alcalde legítimo Felipe Urriaga. Dicho Comité tiene por cometido expreso mantener el orden y proteger a todos los vecinos y sus propiedades, haciendo mención especial de los curas y las religiosas del convento. No existen testimonios ni prueba alguna de que no fuera así.

Al caer el pueblo en manos de los sublevados, José no ve el peligro y decide no huir porque asegura "no haber hecho mal a nadie y no tener nada que ocultar".

Sin embargo, es denunciado por "La Comisión" el 14 de Julio de 1937 acusándolo como: "Guardia Cívico de la Junta de Defensa. Elemento indeseable que ha tenido actuación muy destacada, habiendo tomado parte en los registros domiciliarios, detenciones, etc. Se cree que trabaja en la actualidad en los talleres de armería de Elgoibar; actuación amenazante para las derechas".

José es detenido el 27 de julio y llevado a la cárcel de Larrinaga.

A continuación, se abre en su contra, y otros 10 vecinos de Berriz igualmente denunciados, el Proceso sumarísimo de urgencia nº 544, presidido por el juez militar González Queipo de Llano.

La familia, en especial su cuñado Evaristo Zabala, militante falangista, intenta repetidamente interceder por él ante el alcalde denunciante, pero es inútil.

En un juicio militar sin ninguna garantía y completamente ilegítimo, se condena a la pena de muerte a José. Es acusado usando prácticamente las mismas palabras que utilizaba "La Comisión" en su denuncia, calificándolo además la Auditoría de Guerra del Ejército de Ocupación, de "rojo".

José sólo puede despedirse de su esposa e hijos con una pequeña nota: "Mi adorable esposa tomo la pluma con mano temblorosa para despedirme de ti y de nuestros adorados hijos porque ha llegado la hora...hasta la fecha no creo que te haya dado ningún disgusto pero en caso que te lo haya dado perdóname como yo les perdono a los que a mi me han traído a este extremo...mi cabeza y mi mano no responden...hasta que nos veamos en el otro mundo. Adios Adios".

Es fusilado el 11 de septiembre de 1937 a la edad de 33 años en el cementerio de Derio y enterrado en una fosa común.

Diez años después se abrió la fosa y sus restos pudieron ser identificados por las marcas especiales de la suela de goma de sus alpargatas. Su familia lo trajo a Berriz.

Tras su ejecución y durante mucho tiempo, su viuda e hijos, tuvieron que sufrir el acoso de los mandatarios del pueblo, llegaron a negarles la luz eléctrica y la habitabilidad de su vivienda durante años.



FELIPE URTIAGA EGUREN

Nace en Berriz en 1882. Estudia con los jesuitas en Comillas y más tarde se tituló como capitán de la marina mercante. Se casa con Celestina Arguinzoniz Zabala de Berriz y tiene 3 hijas, Pilar, Niceta y María Luisa.

Hacia 1923 deja de navegar para crear la fábrica de gaseosas "The soda Water" y regentar el bar "La fonda" y los servicios que desde ella se ofrecían. Ambos negocios situados en Berriz.

Se le recuerda como un hombre activo y culto, católico, de ideales políticos y sociales progresistas. Se presenta a las elecciones municipales del 14 de abril de 1931, elecciones que abrieron la puerta a la instauración de la II República en el Estado Español. Felipe forma parte de una coalición ganadora y es elegido alcalde. Su ideario le lleva entonces a afiliarse a Izquierda Republicana.

Berriz, con la nueva corporación, consigue que la conducción de agua llegue a todas las casas urbanas, que cada barrio disponga de una escuela pública, gratuita y laica, que se construya el frontón de Olakueta, se mejoren los caminos, etc.

Felipe participa también activamente defendiendo el proyecto de Estatuto Vasco, y va a dimitir, como los otros alcaldes vascos, tras la victoria de las derechas en 1933. Se niegan a su afán centralizador, exigiendo autonomía municipal y el concierto económico.

En las terceras elecciones generales de la II República, el 16 de febrero de 1936, gana "El Frente Popular" de izquierdas y Felipe Urutiaga vuelve a la alcaldía. El 18 de julio de 1936 Franco se subleva y la guerra estalla. Berriz, para organizarse frente a la rebelión como otros muchos pueblos, crea un "Comité de Defensa" que preside el alcalde. Tiene por objeto la defensa pero también los suministros y el orden público.

Quando, en abril de 1937, Berriz cae en manos de los golpistas "La Comisión" acusa literalmente a Felipe de ser "de ideas azañistas y de mangonear a todos los elementos de izquierdas y nacionalistas del pueblo y contornos..." así como de malgastar en obras a su capricho el dinero del pueblo, de haber ocupado la presidencia del Comité de Defensa Local y de haber sido miembro de la Junta de Investigación Local en representación de Izquierda Republicana.

Felipe intenta escapar ocultándose en Bilbao, pero es detenido el 28 de julio y llevado a la cárcel del Carmelo de Bilbao.

El 13 de agosto en consejo de guerra, Procedimiento sumarísimo de urgencia 613 con el juez instructor Gonzalo Queipo de Llano, es condenado a la pena de muerte.

Su hija María Luisa intenta buscar ayuda y consigue el aval de la marquesa de Berriz pero no logra el del cura del pueblo, que acusa a Felipe de haber retirado los crucifijos de las escuelas.

Felipe, a escondidas, logra pasar algunas notas de despedida en las que dice como a pesar de reconocerse víctima de una gran injusticia, perdona a sus delatores y ejecutores, a la vez que se afirma en sus principios religiosos, éticos y políticos, confiando en el futuro, en la victoria de la libertad y la vuelta del gobierno legítimo en España y Euskadi, diciendo a su familia que moría con la conciencia tranquila.

En una última nota, dos días antes de ser fusilado escribió: "... mi carne se resiste a que sea eliminada de este mundo por la justicia de los hombres que muchas veces peca de injusta y que en su día tendrá que dar cuenta de su actuación".

Es fusilado el 11 de septiembre de 1937, a la edad 55 años, en el cementerio de Derio y enterrado en una fosa común. Años después sus restos pudieron trasladarse a Berriz.

Tras su fusilamiento, la familia es despojada de prácticamente todos sus bienes. La fábrica, la casa familiar y de todos los servicios que se ofrecían relacionados con "la Fonda": La alhóndiga, la gasolinera, la distribución de café, el estanco, etc.





GREGORIO URQUIJO ALBERDI

Nace en Arakaldo (Bizkaia) el 4 de abril de 1887.

En 1918 entra a formar parte del Grupo de Miñones de Bizkaia, organismo dependiente de la Diputación provincial. Tenían encomendado el cuidado de las carreteras, así como otras cuestiones de seguridad y vigilancia.

Su primer destino es el barrio de San Miguel de Elgoibar donde conoce a Catalina Juaristi Larrañaga. Se casan y pasan a vivir a Markina. Tendrán 4 hijos y una hija.

Tras unos años, es ascendido a cabo y le trasladan a Berriz, al cuidado de la Caja de Ahorros Vizcaina, pasando a vivir al barrio de Abeletxe.

Cuando se crea el Comité de Defensa Local en este pueblo, Gregorio automáticamente queda integrado en él, por orden y nombramiento del Gobernador de Bizkaia. No hay constancia, ni testimonio alguno, de que en el desarrollo de sus funciones estuviera implicado en detenciones ni en ningún otro tipo de actuaciones represivas.

El 8 de abril de 1937 es trasladado a la Comandancia de Miñones de Bilbao y de aquí a la Caja de Ahorros de Karrantza, para de nuevo volver a Bilbao, donde le sorprende la entrada de las tropas franquistas.

El Cuerpo de Miñones lo conformaban 128 personas, 22 de ellas deciden sumarse al Ejército Vasco que va en retirada hacia Cantabria. Sin embargo, Gregorio, el primer día tras la toma de Bilbao, decide presentarse voluntario ante las tropas rebeldes.

Inmediatamente a la toma de Bilbao las autoridades franquistas abren un proceso contra los miñones de Bizkaia. En tres días, del 28 al 30 de junio de 1937, son detenidos 91 miñones que son llevados a declarar a la prisión creada en el Teatro Arriaga de Bilbao. Contra 44 de ellos, Gregorio incluido, se presentan cargos por rebelión militar.

Gregorio es acusado de "nacionalista-separatista recalcitrante y de tener, años antes, un arresto de dos meses por sentencia de un juez de Marquina por exaltación política".

El 13 de julio, en un consejo de guerra de 20 minutos y sin posibilidad de defensa, Causa nº 176-37, 10 miñones son condenados a muerte. Gregorio es uno de ellos.

El 4 de agosto, a la edad de 50 años, es fusilado en el cementerio de Derio.

Su mujer y sus hijos huyen en barco a Francia viviendo un sinfín de experiencias durísimas. Se ven obligados a separarse y dos de los hijos son internados en un colegio para hijos de republicanos en Perpignan. Sólo 4 años después logran reunirse con su madre y hermana en Donibane Lohitzune.



Zer gertatu zen gero?

Ipuina: **Jose Julian Bakedano**

Hogei urteko durangarra zen Martin. Bilborako trenara hartzen zuen egunero Ezkur-diko estazioan. Han egoten zen Donostiako trenaren zain eta, halako batean, neska aurpegi eder miragarria ikusi zuen Bilbotik Donostiaruntz zihoan treneko bentanan. Momentu bat baizik ez zen izan, baina nahikoa agerpenarekin mozolotuta geratzeko. Apartatu zuen begirada, bestela galduko zukeen bere trenara, eta erdi tontotuta igon da Bilborakoan. Neska hori zelan berriz ikusi besterik ezin du pentsatu harrezkero. Biharamon goizean ikusiko zuen, agian. Berriz ikusiz gero harengana hurbilduko zela hausnartu zuen. Hurrengo egunean, egoera bera errepikatu zen: hantxe zegoen neska bera bentanillan. Bata besterari begira zeudela ohartuta, Martinek zeozer egin behar zuela pentsatu zuen, baina ez zen ausartu. Bezperan bezala, Bilborako trenara hartu behar zuen Martinek, eta neska Donostiaruntzkoan zihoan.

Egoera hori egunik egun errepikatu zen luzaroan, harik eta behingoan Martinek neska-karen trenara igotzea erabaki zuen arte. Baina, gauzak ez ziren Martinek aurreikusi bezala gertatu. Martinek neska-karen bagoira igotzea erabaki zuen egunean, neska-karen eman dezagun neska hori Ana deitzen zela-- estazioan jaistea erabaki zuen Martinengana hurbiltzeko. Martinek, Donostiarako trenaren barruan ez zuen Ana aurkitu, egon ohi zen lekuan. Eta, bentanillatik so egitean, ikusi zuen Ana estazioan zegoela. Hala, beraz, Martinen trenara Donostiaruntz zihoan, eta Ana Durangoko estazioan gelditu zen, bere trenara galdua, hurrengoaren zain.

Zer gertatu zen gero? Aurkitu zuen Ana Donostiako estazioan Martin? Edo Martinek Donostian, aspertuta eta zer egin jakin gabe, Bilborakoa hartu zuen?

1936ko uztailaren 17a zen, ostirala.





Jose Mari Uriarte gogoan

Laster izango da urtebete Jose Mari Uriarte adiskidea hil zela (2020ko apirilaren 17an).

Jose Mari Durango 1936 Kultur Elkartearen sortzaileetakoa izan zen, eta gogoz ekin zion lanari elkartearen lehenengo urteetan. Bereziki, arreta jarri zion gerra-garaiko eta gerra-ondoko aldiakotako lekukotasunak jasotzeko egitasmoari. Jose Marirentzat oso garrantzitsua zen ondorengoei, belaunaldi berriei, Durangoko eta Euskal Herriko historia helaraztea, historia ofizialak isildutakoa edo ezkutatutakoa jakinaraztea. Horregatik, bera izan zen elkartean gerra-garaiko eta faxismoaren errepresioaren lekukotasunak biltzearen beharra ikusi zuen lehenetarikoa.

Gaur, egitasmo honek bizirik dirau, eta dagoeneko ehun eta hogeitik gora lekukotasun bildurik eta sareraturik ditu Durango 1936 Kultur Elkartek.

Baina, Jose Marik Durangoz eta Euskal Herriaz zuen ametsa ez zen gure elkarteren ekimenetara mugatu. Ikertzaile zorrotza eta etengabea izan zen. Ikertzailea izateaz gain, aurkitutakoa herriari, herritarrei, jakinaraztea ere maite zuen eta horretan ahalegindu izan zen (Ibaizabal aldizkaria, Astola aldizkaria, Durangoko Arte eta Historiako Museoaren argitarapenak, liburuak, eta abar).

Gerediaga Elkarteko kidea zelarik, Durangok gerra-garaian

bizi izandakoa herriratzen ahalegindu zen durangar gehienak isilik geundenean. Gerediagako hainbat kideekin batera, martxoaren 31a eta ondoko egunetako bonbaketak ikertzen eta ezagutarazten ahalegindu zen. Hamaika izan dira bere ekarpenak Durangarrek historian zehar bizi izanikoez. Durangarrek Jose Marik egindako ekarpenak ez ahanzte itxaroten dugu.

Amaitu aurretik, Jose Marik bizitzan zehar jasandako gertaera latz bat gogorarazi nahi dugu, atxilotu eta torturatua izan zenekoa.

1979ko urriaren 31ko gauean atxilotua zuten eta Indautxoko polizien etxera eroan. Sei gau eta egunez torturatu eta gero, espetxera eroan zuten. Jose Marik ez zuen nahi izaten horretaz hitz egiterik, ez zuen gogoratzerik nahi. Baina denetik egin zioten. Gorputz guztian kolpeak jaso zituen, gehienetan toaila busti batez eginikoak, lorratzik ez uzteko. Bainerarena (burua uretan murgildu arnasa hartzeko beharra galaraziz) ere egin zioten, elektrodoak barrabiletan ere lotu zizkieten, erruletarena eta kirofanoarena ere egin zizkieten. Larrutu ere egin zuten. Holakoez gain, egun eta gau lorik egin ez zezan itzarrik izaten zuten, mahai baten aurrean jesarrita edo zutik, torturatzailleek jartzen zuten musikarekin edo zaratekin. Bitartean, mespretxuz, irainez, burlaz, mehatxuz zuzentzen zitzaizkion. Gau eta egun. Etenik gabe.

Eskerrik asko Jose Mari!





GURUTZI ARREGI AZPEITIA

Gurutzi Arregi Azpeitia, etnografoa, 1936an Lemoan jaio zen, eta lau urte zituenetik Durangon bizi izan da Zornotzan hil den arte, 2020ko maiatzaren 6an. Langilea 12 urte zituenetik, arratsalde-gauean Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen eta bikain lortu zuen doktorego tesia La función de la ermita en las vecindades de Bizkaia lan bikainarekin. Horretarako herriz herri, auzoz auzo eta ermitaz ermita ikertu zuen Bizkai osoan. Ander Manterolarekin batera Labayru Institutuan eta Etniker-en sorkuntzan lan egin zuen. Joxe Miel Barandiaranen dizipulua eta idazkaria izan zen.

Diktaduraren ondoren, lehen legealdian zinegotzia izan zen Durangoko Udalean eta kultura-arloko ardurak izan zituen. 2020ko azaroan, Durangoko alaba kuttuna izendatu zuen Udalak.

Emakume ikertzailea eta intelektuala izan da Gurutzi Arregi. Gure gizartean emakumeek goi-mailako ikasketak egitea edo ikerkuntzan aritzea ohikoa ez zenean, barneko jakin-minak eta euskal gizartearekiko atxikimenduak bultzaturik, Gurutzik bide hori urratu zuen. Ibilbide horretan, Gurutzik lan bikainak burutu ditu euskal kulturaren ondarea berreskuratzeke eta gizarteratzeko, euskaldunok jakitun izan gaitezen geure arbasoek urratutako eta eraikitako iraganaldiaz.

Azken aldian, Gurutzi, Etniker Euskalerriko kideekin batera Euskal Herriko Atlas Etnografikoa burutzen aritu da buru-belarri.

Eskerrik asko, Gurutzi!



TURE ARGITALPENAK



Urtekaria 2018



Urtekaria 2019



Komikia
UDABERRIRIK ANKERRENA
Iturriaga - Sanvi
(Durango 1936/ Elkar)



Durango 1936 Kultur Elkartea
Pinondo kalea 1, 48200 Durango

www.durango1936.org
durango1936@durango1936.org



Durango 1936
Kultur Elkartea

Ahantzuraren kontra, memoria

•

Visítanos y alimenta la
memoria histórica

www.durango1936.org

